

Tren publiko eta sozialaren alde antolatu dira


AHT egitasmoari alegazioak aurkeztuko dizkiote / 7



Altsasuko auziaren epaiketaren bezperan manifestaziora deitu dute Iruñean, apirilaren 14an / 11

Gurasoak D eredu, euskarazko hezkuntza, aukeratzera animatu dituzte / 6

Irurtzun Hernaniren kontra ariko da Euskal Herriko klubaren arteko txapelketako finalerdian / 15



60 orri baino gehiago

Elkarbizitzarako eta zubiak eraikitzeko lan tresna izan nahi du / 2-4

M
Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola Politeknikoa

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

Proiektuetan oinarritutako metodologiaren bidez, ezinezkoak ziruditen lanak gauzatu ditugu.

Laura Ayo Valle
Bergara, Mekanikako Ingeniaritza, 4. maila

GOIERRI

OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

MARTXOAK 17
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

610PF-0 ZAR-06A JAKI-01AF-024

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 / bulegoa@goierrieskola.eus

Sufrimenduaren Mapa, etxarriarren memoria

Etxarri Aranatzeko arrazoi politikoengatik 1936tik gaurdaino egondako sufrimendua dokumentu batean jaso du udalak. Osatu beharra dagoen "lehen hurbilketa"; asmoa duena "hainbat zauri ixtea eta elkarbizitzaren alde egitea"

ETXARRI ARANATZ

"Zor zahar bati" erantzuten dio *Etxarri Aranatzko Sufrimenduaren Mapa*, azaldu zuen Eneka Maiz Ulaiar alkateak aurkezpenean. "Arrazoi politikoengatik sufrimendu hori euren larruan pairatu dute pertsona askok, baita haien senide eta gertukoek ere". Horiek jaso dituzte txostenean.

Etxarri Aranatz "asko sufritu duen herri txikia" izanik, alkateak azaldu zuen lanaren helburu nagusia "etxarriarrendako, elkarbizitzarako eta elkarrenganako zubiak eraikitzeke lan tresna bat egitea" dela. Horrengatik, dei egin zuten herritarrei, gizarte eragileei eta erakundeetara "ulermen eta elkarbizitza espazioak sortu ditzaten. Elkarbizitza heldu nahi badiogu guztiok izan beharko duguz eskuzabalak, iragana kolektiboki pasa". Aldi berean Maizek "tamalez gure sisteman dagoen demokrazia eta askatasun defizita hobetzeko lan egitera" dei egin zuen.

Atzera begira

Alkateak esan zuenez, "iraganari begirada objektiboa" eman nahi zaio. "Ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko, gaudizteko, zauriak ixteko, eta etorkizunari determinazioz begiratzeko". Maizek gaineratu zuenez, "Etxarri buruz asko hitz egin da eta iritzi asko eman dira, baina oso gutxi ikertu da arrazoi politikoengatik herri honetan egondako sufrimendua. Etxarriarrek ez dute ezagutzen euren iragana". Dokumentuaren hitzaurrean jasotzen denez, "memoria kole-



Begoña Goikoetxea, Aritz Ikobaltzeta, Eneka Maiz, Alazne Juaniz eta Maria Saez.

tiboa berreraikitzeke zuzeneko lotura dauka giza eskubideen errespetuarekin eta aplikazioarekin. Izan ere, lanketa hori ezinbestekoa da ukitutako pertsonen eta hain senide eta ingurukoek pairatutako mina sendatzeko, eta funtsezkoa da bake eta elkarbizitzarako oinarri sendoak ezartzeko".

Aurkeztutako dokumentua "gertatutakoari hurbilketa" dela nabarmendu zuen alkateak, "ahalik eta objektiboena izan nahi duena. Beti geratuko dira datuak osatzeko, gehitzeko edo baita zuzentzeko ere". Horrengatik, edizio berriak izanen direla aurreratu zuen alkateak.

Mapaz

Azken 80 urteetan jasotako gertakariak jaso dira dokumentuan: hildakoak, erasotutakoak, espetxeratutakoak, exiliatutakoak,

urrundutakoak, inhabilitatutakoak, depuratutakoak, mehatxatuak eta abar.

Etxarri Aranatzko Udalak lana egin ahal izateko Herritarreko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuko Bizikidetzeta eta Bake Zerbitzua- ren diru-laguntza izan du, 5.790 euro. Eta hari esker kontratatu ahal izan zuen Euskal Memoria fundazioa, halako gaietan eskarmentua duen erakundea. Lanak hiru garai desberdin ditu: 1936-1939 (gerra), 1940-1959 (gerrostea) eta 1960-2015 (gatazka politikoa).

**ASTEAREN,
18:30EAN, KULTUR
ETXEAN AURKEZTUKO
DU AGIRIA IÑAKI
EGAÑAK EGILEAK**

Maizek esan zuenez, "funtsezkoa da ikuspegi globala izatea, gure iraganeko eta gaur egungo klabe asko ulertzeko". Astelehenean aurkeztutakoa Nafarroan aitzindaria da, "orain arte ez da halakorik egin eta jarraitu beharreko bidea dela uste dugu. Elkarbizitza eta behin betiko bakeaz hitz egiteko ikerketa inklusiboak eta globalak egin behar dira".

Lehen zatia, 1936-1939

Nafarroan bezala, Etxarri Aranatzeko ere ez zen gerra frontetik izan baina, 1936ko estatu kolpearen ondorengoak arrasto sakona utzi zuen herrian. Fusilatutako etxarriar bat bera ere ez zuten herrian hil, urrun eraman zituzten. Haien artean zegoen 1933ean Udaleko Kudeaketa Batzordeko buru, alkate, Felix Lopez Sanchez. Errepublikaren alde borrokatu zuenetako bat Ezkaba mendiko presondegiaren sartu zuten eta hango egoera lazarriengatik hil zen; mendi magaleko Botilen Hilerrian eman zioten lur (Vicente Huarde Mercero).

Estatu kolpea eman eta gero lana galtzen lehenak bi udal zaindari izan ziren. Gerora irakasleen txanda izan zen, batzuk postuetatik kendu, besteak erbestera edo irakaskuntzatik baztertu zituzten. Garilaren 18koa eta gero berretsiak izan ziren hiru zinegotzi lastailaren 10erako "abertzaleak eta antipatriotak" izateagatik kargutik kendu zituzten.

Bestetik, hainbat emakumekori jendaurrean ilea erabat moztu eta errizino olio eman zieten. Egoera horretan Francoren eta Espainiaren aldeko oihuak egitera behartu zituzten. Fusilatutakoen alargunek ez zuten udalaren, diputazioaren edo elizaren batere laguntzarik jaso eta etxera dirua eramaten zuen senarrik gabe, oso egoera txarrean geratu ziren, hainbat seme-alabekin eta etxetik kanpo lana lortzeko zail, "gorriak" zirelako. Beste hainbati lurrak eta ondasunak kendu zizkieten.

Gerra piztu zenean asko bo- luntario joan ziren, beste batzuk behartuta soldaduskan zeudela- ko edo giroak hala eskatuta. 225 etxarriar izan ziren kolpisten armadan borrokatu zutenak. 1600 pertsona bizi ziren garai hartan Etxarri Aranatzeko eta Francoren armadan aritu zirenak populazioaren % 14,06 izan ziren. Baina gutxi batzuk bandoz al- datu ziren eta joandakoetatik 24 ez ziren bizirik bueltatu. Bes- tetik, errepublikarrek Iruña bonbardatu zutenetako batean 8 urteko haur etxarriarra hil zen.

Bigarren zatia, 1940-1959

1939ko apirilaren lehen jakina- razi zuen Francisco Franco Bahamonde diktadoreak gerra bukatu zela. Hala ere, atxilo- tek, harrapaketek, ihesek, er-

Lana egiteko ibilitako metodologia

1948an onartu zen Giza Eskubideen Deklarazioa eta geroztik hartan oinarrituta arau eta protokoloak garatu dira. Datuak biltzerakoan gertakarien ulean Etxarriko bizilagunak zirenak sartu dira, bertan jaio edo ez. Herrian gertatu baina bertan bizi ez ziren pertsonen jasandakoa ere sartu da. Baita etxarriarrei herritik kanpo gertatutakoak ere. Noizbait herrian familia edo laguntasun loturak izandakoak ere ageri dira.

Atxilotuen zerrendan Etxarri erroldatutakoak edo bertan bizi zirenak daude. Eta sufrimendu kasu zehatzei dagokienez, osotasun fisikoari egindako edozer mailatutakoak hartu dituzte kontuan.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia

5 9000

Beirak lehorrean jarrita

Isolamendu nukleo indartsua

IKD

Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruña

besteratzeek, heriotz zigorrek, behartutako lanek, kontzentrazio eremuek segitu zuten. UGT-ko kide ziren bi etxarriar Frantziako Gurseko kontzentrazio eremuan bukatu zuten. Beste bostek 1937an erbesterako bidea hartu zuten. Frankismoaren lehen garai horretan traizio, desertzio, hilketa edo matxindada delituengatik preso egon ziren etxarriarrak.

Hirugarren zatia, 1960-2015

70eko hamarkadak bederlatzi hildako utzi zituen. Aurreneko hildakoa Donostian bizi zen etxarriar bat izan zen, Burgosko Prozesuko auzipetuen askatasuna aldarrikatzen zuen manifestazio batean atxilotu zuten. Tortura ondorengo depresio sakonak bere buruaz beste egitera eraman zuen.

Beste bost hildako utzi zituen Casas Baratasetan mugitzen ari ziren mortero granada baten ezteandak. Andia mendian militarren maniobren ondoren jasotako txatarra zen. Azken hiruak 1979an izan ziren: Jesus Ulaiar Lizeaga alkate ohia ETAK atentatuan hila, Juan Ignacio Erdozia Larraza ETAKo kidea poliziarekin izandako enfrentamendu baten ondoren hil zena eta Guardia Civilak autoa tirokatu ondoren hil zen Mikel Arregi Marin zinegotzi lakuntzarra. 90eko hamarkadan beste bi heriotza izan ziren: Pello Mariñelarena Imaz ETAKo kidea preso zegoela gaixotasun larriarekin hil zen eta Josu Zabala Salegi ETAKo kidea, oraindik argitu gabeko egoeran hila.

Atxilotutako asko izan dira Etxarri Aranatzen. Hainbatek torturak salatu zituzten ondoren, kargu gabe libre utzitakoan. Jon Patxi Arratibelen salaketa Estraburgoko epaitegira iritsi zela jaso da.

Hainbatengan "kezka eta alarma" sortu zuten kale borrokako ekintzek. "Etxarriren tamaina kontuan izanda kopuru handia da". Tren geltokia eta Batzokia erre zituzten, besteak beste. Giroa "nahasi" zuten "aurkari politikoaren aurkako mehatxu publikoek edo ospe kentzeek".

Momentuz 60 orri ditu txostenak eta espazio faltagatik hemen jaso ezin diren hainbat gertaera eta sufrimendu jasotzen ditu. Azken datu bat bukatzeko: ikeritutako 82 urteetan guztira 55 hildako etxarriar zenbatu dira.

Sufrimenduaren Mapako datuak

1936-1939

- **17, kolpistek hil edo desagerraraziak:** Clemente Araña Miguel de Echarri; Narciso Artola Razquin; Claudio Doroteo Dieguez Loza; Paulo Garcandia Arin; Andres Gonzalez Lorente; Vicente Huarte Mercero; Luis Imbert Lucas; Luciano Larraza Lizarraga; Bernardo Lopez Alzaga; Felix Lopez Sanchez (alkate ohia); Antonio Maiza Miranda; Laureano Mañeru Urmeneta; Julian Mauleon Cabra; Cirilo Ollo Jimenez, Enrique Peláez Campo eta Rufino Vicuña Jaca.
- **4, errepublikaren alde borrokan hilak:** Antonio Aranzasti Aldasoro; Jose Goñi Iza; Pedro Osambela Muneta eta Damian Zabala Bacaicoa.
- **4, Lizarrustin fusilatutako ordiziarrak:** Ignacio Esquichabel Oria; Emeterio Garmendia Lasa; Sotero Jauregui Lizarazu eta Antonio Murua Arruabarrena.
- **4, Aritzalkon fusilatutako burundarrak:** Jose Iriarte Bengoetxea (Altsasu), Felix Muruzabal Valencia, Miguel Goikoetxea Zelaia eta Felix Jimenez Piniel (Olatzagutia).
- **17, espetxeratuta erregimenaren kontrakoak izateagatik:** Ricardo Aranzasti Guillen, Jose Artieda Lizarraga, Francisco Calleja Calparsoro, Jose Calparsoro Ijurco, Pedro Echeverria Echeverria, Teodoro Echeverria, Mariano Galarza Berona, Juan Garcandia Berastegui, Juan Martin Ijurco Zubiria, Vicente Huarte Mercero, Antonino Imaz Jauregui, Gregorio Jaca Arizmendi, Miguel Lancos Aguinaga, Jose Maiza Garmendia, Pilar Maiza Miranda, Bautistea Mariñelarena Belza, eta Ramon Razquin Urri.
- **12, karguak galdu zutenak:** Victoriano Aguado Baza, Julio Aldaz, Virginia Alonso Peña, Bautista Belza, Francisco Echarri Jaca, Pedro Goñi, Esteban Imaz, Martina Jubete Lopez, Maria Maiza, M^a Soledad Olejua Irurzun, Moises San Martin Irurzun eta Felipe Ceberio Arratibel.

- **1, errepublikaren Iruñeko bonbardaketan hila:** Victorino Lizarraga Imaz haurra.
- **225, kolpisten armadan borrokatu zutenak:** batzuei soldadutzan harrapatu zien, besteak borondatez joan ziren edo behartuta.
- **24, kolpisten armadan borrokatu eta hildakoak:** Jose Aldasoro Maiza; Jose Aldasoro Oyarbide; Francisco Artieda Barandiaran; Jose Artieda Imaz; Antonio Artieda Lizarraga; Sebastian Echarri Leiza; Juan Gamboa Razquin; Domingo Garcandia Ezquerria; Domingo Garcandia Fernandez; Luis Garmendia Iza; Pedro Huici Satrustegui; Fernando Ijurco Urmeneta; Gabriel Iraurqui Ceberio; Benito Jaca Razquin; Rufino Lizarraga Razquin; Julio Jaime Lizarraga Senar; Ignacio Maiza Auzmendi; Juan Maiza Ijurco; José Marcotegui Bacaicoa; Angel Mendiola Igoa; Ascensio Mendiola Igoa; Juan José Razquin Mozo; Pedro Razquin Urri eta Gregorio Zabala Maiza..

1940-1959

- **2, Gurseko kontzentrazio eremuan:** Bonifacio Fernandez Ayestaran eta Antonio Velasco Arana.
- **5, erbesteratuak:** Julian Lujambio Leiza; Jose Manuel Maiz Navarro; Jose Mariñelarena Navarro; Felix Rodrigo eta Martina Tellechea.
- **5, preso:** Jose Artieda Lizarraga, Maximo Garcia Blanco; Emilio Goñi Zaratiegui; Francisco Ijurco Mundiñano eta Ramon Razquin Urri.

1960-2015

- **1, poliziak atxilotu eta torturatu ondoren hila:** Antonio Goñi Igoak bere buruaz egin zuen. (1970-12-21)
- **5, Ordena Publikoko Auzitegian epaitutakoak:** Pedro M^a Artieda Artieda, M^a Nieves Artieda Arbizu, Fermin Ijurco Igoa, Juan I. eta Rafael Larraza Lakuntza, eta Felix Andres Lazkoz Goñi. Lehena ezik denak espetxeratuak. (1975-02-25).

- **5, militarren praktiken ondoren Andian jasotako granadarekin hilak:** Saturnino Luis Erdozia, Jose Luis Luis Taber, Gloria Pejenuate Pejenuate; Segundo Maiza Beiza eta Jesus Miguel Ceberio Maiza. (1978-06-18).
- **1, ETaren atentatuan hila:** Jesus Ulayar Liciaga (alkate ohia). (1979-01-27).
- **3, ETAKo kide hilak:** Juan Ignacio Erdocia Larraza (1979-10-08), Pello Mariñelarena Imaz (1993-05-15) eta Josu Zabala Salegi (1997-03-29).
- **8, kale mobilizazioetan segurtasun indarrek zauritutakoak:** Juan Cruz Aldasoro, Gotzon Artola, Patxi Barandalla Iriarte, Unai Barandalla, Andres Erdozia Larraza, Javier Lizarraga Lopez, Angel Javier Lopez Urmeneta eta Pedro Quintana.
- **9, "gera zikina" sufritu dutenak:** Fernando Albarracin Mauleon, Andres M^a Erdozia Larraza, Juan Gayarre, Tomas Huici Mendiola, Fermin Ijurco Igoa, Juan Luis Larraza Lacunza, Rafael Larraza Lacunza, Jose Ramon Martinez eta Luis Mundiñano Garcandia.
- **64, segurtasun indarrak atxilotutakoak:** Ramon Albarracin Mauleon, Joxe Aldasoro Jauregi, Juan Cruz Aldasoro Jauregi, Mikel Arratibel Gartzandia, Jon Patxi Arratibel Gartzandia, Igor Artieda Galdeano, Santiago Ayestaran, Bautista Barandalla, Francisco Barandalla Iriarte, Koldo Barandalla Goñi, Oihan Barandalla Goñi, Angel Erdozia Larraza, Jose Luis Erdozia Mauleon, Jose Luis Erro Lakuntza, Javier Etxarri Senar, Jesus M^a Etxarri Senar, Fernando Flores Lazkoz, Jose Luis Flores Lazkoz, Juan Fernando Flores Lazkoz, Juan Manuel Garmendia Lakuntza, Alberto Garmendia Lakuntza, Antonio Goñi Igoa, Patxi Huizi Mendiola, M^a Asuncion Igoa Uncilla, Fermin Ijurco Igoa, Hodei Ijurco Iroz, Maider Iraurqui Arrieta, Daniel Iza Dorronsoro, Unai Jaka Karrera, Juan Ramon Karasatorre, Patxi Karasatorre Imaz, Asier Karrera Arenzana,

- Pello Kintana Goñi, Jesus Maria Larraza Lakuntza, Rafael Larraza Lakuntza, Pedro Miguel Lasa Elizalde, Javier Lizarraga Lopez, Luis Lizarraga Lopez, Pello Mariñelarena Imaz, M^a Eulalia Mariñelarena, M^a Teresa Mendikute, Jesus Mendiola Garziandia, Enekoitz Mendiola, Iñaki Mauleon Garziandia, Amaia Mundiñano Larraza, Mikel Mundiñano Larraza, Iñaki Mundiñano Larraza, Koldo Mundiñano, Juan Jose Nazabal Auzmendi, Vizente Nazabal Auzmendi, Itziar Olaskoaga Etxarri, Jesus M^a Reparaz Lizarraga, Fernando Salinas Ferrer, Jose Luis Sanzol Saez, Jaime Sanzol Yabar, Josune Senar Lasa, Unai Telletxea Zaitegi, Eugenio Ulaiar Huizi, Migel Angel Ulaiar Mendiola, Marcos Urdangarin, Iban Verdugo Markotegi eta Ander Zabala Lakuntza
- **11, erbesteratuta:** Koldo Barandalla Belza, Oihan Barandalla Goñi, Juan Ignacio Erdozia Larraza, Alberto Garmendia Lakuntza, M^a Asun Igoa Unzilla, Jesus Iparragirre Lujanbio, Teodoro Iza Dorronsoro, Juan Ramon Karasatorre Aldaz, Juan Cruz Maiza Artola, Koldo Mariñelarena Garziandia eta Pello Mariñelarena Imaz.
- **19, kale borrokako ekintzak.**
- **6, egun preso daudenak.** Oihan Barandalla, Luis Mariñelarena, Hodei Ijurco, Asier Karrera, J R Karasatorre eta Jon Gurutz Maiza.
- **3, mehatxuak jaso zituzten hautetsiak:** Moises Goldarazena Huici (alkatea, ETA), Joxi Bakaikoa (anonimoa) eta Juan Antonio Extremera Apestegia (anonimoa).
- **2, soldaduskarekin ez kolaboratzeagatik ezgaitutako alkateak:** Manuel Campos Castresana eta Juan Cruz Aldasoro Jauregi.
- **8, intsumisoak edo desertoreak:** Alfredo Alvaro Igoa, Ander eta Juan Martin Goñi Beltza, Unai Jaka Karrera, Jose Manuel Mariñelarena Garziandia, Miguel Angel Ormazabal Arratibel eta Oskar Razkin Urmeneta.



Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harreman Batzordean izan zuten Etxarriko txostena hizpide. UTZITAKOIA

Txostenaz Nafarroako Parlamentuan hizketatu ziren

Asteartean izan zen. Partido Popularrak hala eskatuta Ana Ollo kontseilariak emandako diru-laguntzaz azalpenak eman zituen eta ordezkatuta dauden alderdiak txostenaren inguruko euren iritzia eman zuten, ezagutu ez arren

ETXARRI ARANATZ

Astelehenean Etxarri Aranazko Udalak herriko *Sufrimenduaren Mapa* aurkeztu ondoren, dokumentua Nafarroako Parlamentuan hizketagai izan zen asteartean. PPKo Ana Beltranek eskatuta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollo Parlamentura joan zen. Kontseilariak argitu zuen txostenaren zirriborroa zuela eta gainontzeko parlamentarioek, EH Bildukoek ezik, ez zutela.

Beltran popularrak esan zuenez, udalaren lanak "biktimak eta borroroak parekatzen ditu". Jesus Ulaiar eta Vicente Nazabalez ari zen. Gobernuaren diru-laguntzak "hilketen eta zitalkerien kontakizuna txuritzeko,

OLLOK BAKE ETA BIZIKIDETZA POLITIKETAN UDALEN PARTE HARTZEA DEFENDATU ZUEN

perbertitzeko eta distortsionatzeko" balio dutela gaineratu zuen. Udalak egindakoa "ETAko biktimen memoriarendako iraina da, bereziki Jesus Ulaiarren". ETAko beste biktima baten hiltzailea ere ageri zela gaineratu zuen. Gobernuak udalari diru-laguntza bueltatzeko eta udalak txostena erretiratzeko eskatu zuen Beltranek.

Beste alderdien iritzia
Iñaki Iriartek (UPN) "gaia kezagarria" dela esan zuen eta

txostenarekin "zantzu okerrenak bete" zirela. "Denak zintzoak izan behar dugu eta giza eskubideen urraketa bat bera ere ezin da alde batera utzi. Baina horrek ezin du ekarri hau gatazka politikoa dela esatea, Euskal Herriak gehien sufritu zuela eta errealitatea faltsutzen duen oinazearen mapa egitea". Ulaiar eta Nazabal zaku berean sartzea "iraganaren manipulaziotzat" jo zuen. Bestetik, lanaren egile den Euskal Memoria fundazioaren kontra ere jo zuen. Ezker abertzaleko kideek osatua dela eta halako lan bat egiteko ez zuela konfiantzarik ematen.

Virginia Alemanek (Geroa Bai) "zilegitasun gabeko biolentzien biktimekin memoria jakituna" izan behar dela aldarrikatu zuen. Biktima guztiak kontuan izan behar direla aldarrikatu zuen. Beltrani zuzenduta, "gertuko memoriari buruz, halako jarrerekin, hitzekin eta akusazioekin ez da ezer eraikitzen". Txostenaz zekienez, "pairatu diren sufrimenduaz hitz egiten du, ez ditu biktimak berdintzen". Biktimekin "politika alderdikoa egiteari uzteko" eskatu zuen.

Bakartxo Ruizek (EH Bildu) udala zoriondu zuen: "pauaso ausarta da. Borondatea adierazi du etxarriarrei bakean eta elkarbizitzan pausoak emateko tresna bat eskaintzeko". Lanaren aitzindaritzat aitortu zuen. "Kontakizun, pentsamendu eta sufrimendu bakarria etengabe agerian jarri nahi duzuenondako deserosoa izatea ulergarria da. Tamalez errealitatea hori da: Etxarrin mota askotako indarkeria eta sufrimendua pairatu duen herritarrek daude". Euskal Memoria fundazioa bazkide gehien duen Nafarroako memoria elkarrekin dela eta Nafarroako Historia Memoriaren aholku batzordean parte hartzen duela gogorarazi zuen.

Laura Perezek (Ahal Dugu) Ulaiarri omenaldia egitea egoki jo zuen. PPKri zuzenduta "biktima batzuk besteekin kontra jartzea adiskidetzaren kontra" egiten duela gaztigatu zuen. "Etxarrin,

UDALAK LAGUNTZA BUELTATZEA ETA TXOSTENA ERRETIRATZEA ESKATU ZUEN PPK

familietan eta gizartean zabalik dagoen zauri batean behatza sartzea" egotzi zien popularrei. Egindako txostenen garrantzia nabarmen du zuen. "Herri honen drama handia da borrero gisa biktima ere izan direnak ager daitezkeela". Gaineratu zuenez, "herriek, pertsonak, eta Etxarri horren adibide da, bizitzen segitzeko barkamena behar dute".

Inma Juriorendako (PSN) gobernuaren ardura beharko lukeela memoria mapak egitea eta udalak hari batu beharko luketela uste du. Juriok esan zuenez, "gatazka politikoa gisa hitz egiten duenean objektibitate galdu egiten da". Eraiki nahiko lukeen memoriaren abiapuntua da "ekintzen ilegimitateak zein kausek eragin zuten. Zer eragin zuen pertsona batzuk biktimak izatea eta bakoitza bere arloan aitortzea. Ez irakurketa bakarrik, giza eskubideetan oinarrituta". Bereizketarik gabe biktima guztiak aitortzea akatsa dela gaztigatu zuen.

Marisa Simonek (I-E) esan zuen memoria ez dela zerbait isolatua, justizia, aitortza eta erreparazioa ere badela. Gobernuari arlo horretan lidergoa aitortu zion. Txostenak departamentuaren helburuekin bat egiten duen aztertu behar duela gaineratu zuen. "Gainditzea ahaztu gabe, ezagutu eta jakin".

Kontseilariaren erantzuna

Ollok azaldu zuen lana ez zela gobernuarena eta Etxarriko Udalak bake eta bizikidetzat esparriaren barruan egiten ari den lanaren zati dela gaztigatu zuen. "Gobernuari ez dagokio txosten horren edukia baloratzea. Ez gobernu honi ez udalei ez dagokie esatea zein den biktima. Aitortza duten terrorismo biktimak salbu". Ollok gogora ekarri zuen biktima batzuk ezin direla aitortu funtzionario publiko edota eskuin muturreko biktimak aitortzeko legeari Espainiako Gobernuak helegitea jarri ziolako. "Kontakizunaren garrantzia, iraganarekin kritikoan den memoria lantzea, biktimologiak testuingurutan lan egitea eta biktimak ez parekatzearen" garrantzitsua nabarmendu zuen. Udalek arlo horretan ardura izatearen alde agertu zen. Gobernuaren ardatzak memoriaren beharra eta biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea direla esan zuen.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

AHT, Alternatibaren ordua!

Dakigunez, Serra ministroak harrokeriaz ekarri du Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua, Nafarroari kudeaketa eskuduntza bahituta (nafar 155). Hala ere, Nafarroako Gobernuari azaltzean, politikari batzuek txalotu egin dute, besteek 'bai baina', eta azkenek txistu.

Alde daudenek abiadura lehenesten dute beste edozeren aurrean, eta ekonomia indartzeko ezinbestekoa omen. 'Bai baina' diotenek abiadura eta garraioa uztartuko dituztelakoan. Aurkakoek, berriz, gizaratearen premiari eta ingurumenari garrantzia emanez, gaitzesi egiten dute. Edozein kasutan, albiste garrantzitsua Sakanarentzat. Ez ona izateagatik, Sakanako lurralde osoa zeharkatzen duelako eta egundoko ondorioak izanen dituelako baizik.

Baina, zer hobekuntza izanen du Sakanak orain ez duenik? Eskasa. Egia da denok bat gatzela gaur egungo tren hobetu egin behar dela, baina ez nolana. Hemen, pasatu nahi da auto eskas batetik kirol Ferrari batera, eta hori ez da horrela. Nahikoa da zazpi plazako auto bat familia osoa eta zama txukun eraman ahal dituen. Hori horrela, makina bat proiektu izan daitezke merkeagoak (eraikuntza eta mantentze kostuetan), jendearendako eta garraiorako egokiagoak, eta nekazaritzaren eta ingurumenaren ikuspegitik ez hain suntsizailleak. Honek Sakanari txikizioa besterik ez dio ekarriko (3.300.000 m2-ko zauri luzea). Horregatik, jokoan asko dagoelako, alderdikeriak alde batera utzita, garaia da Sakanaren lurraldea zeharkatuko duen trenaren alternatiba duina taxutzeko. Gainera, garrantzitsua izanen da Sakanako udalerrri guzti-guztien babesa zabala izatea, eta baita Arabako Aguraingo koadrillarena ere.

HARA ZER DIEN

Ba ez, ez da egia

ANITZARTEAN, KULTUR ARTEKOTASUN ZERBITZUA

Ez da egia, ez. Diru-laguntza guztiak etorkinentzat direla eta bla...bla...bla...

Inork ez du gizarte laguntzarik edo prestaziorik jasotzen "etorkina" izateagatik. Diru-laguntzak, pertsona bakoitzaren ekonomia eta lan egoeraren arabera izaten dira, eta EZ nazionalitate edo jatorriaren arabera.

Laguntza horien helburua da, babesgabetasun edo gizarte kanporaketa arriskuan dauden familia edo pertsonentzat diru-sarrerara eta bizi-baldintza "minimoak" bermatzea.

Horregatik, baldintza horiek betetzen dituen EDOZEIN PERTSONAK EDO FAMILIAK eskura ditzake laguntzak, jatorria edo nazionalitatea edozein dela ere.

Adibidez: Errenta Bermatua. Bere helburua da gizarteratzeko eskubidea eta babesgabetasun egoeran dauden pertsonen arreta bermatzea. Oinarrizko prestazio ekonomikoa eta aldizkakoa da, eta oinarrizko beharrak estali gabe, eta ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona zein familientzat bideratuak daude.

Baldintzak? Behar adina diru-sarrerara edo ondarearen gabezia; Nafarroan bizitzea 2 urtez gutxienez (adingabeen ardura duten familien kasuan urte batez); prestazioa jasoko

den epean Nafarroan bizitzea; enplegu eskaintzetara aurkeztu ahal izateko eskuragarri mantentzea; eta prestazioa jasotzeko baldintzen aldaketan berri ematea.

Laguntzak jasotzeko irizpideak komunitateen arabera dira, eta aldaketak egon daitezke. Gizarte laguntza hauek guztiak, behar sozio-ekonomiko zehatzak dituzten pertsonak jasotzen dituzte, haien jatorria edo nazionalitatea edozein dela ere. Hau da: egoera berean dagoenari, diru-laguntza bera, pertsona edonongoa delarik. Kontua da, atzerriko pertsona ugari, arrazoi ezberdinengatik, babesgabetasun ekonomiko eta gizarte kanporaketa egoerak bizitzeko arrisku handiagoan daudela.

Eta zuk, ezagutzen al duzu halako errealitateak?

GUTUNA

Gure lagun handiari:

TOÑO ETA MARI MAR

Filosofia berezi batez Bizitzeko tenorea

doinu bereziz eman diozu bizitzari kolorea zainduko dugu oroimenean utzi diguzun Lorea zu ezagutzea izandu baita plazerra ta ohorea. Ez da erraza baloratzea

persona baten tamaina gauza txikiek egiten dute txikia handi alajaina doinu politik hizketa ederrak ta gaztain erre usaina Francis maitea balio zundun gizon haundi askok haina

GUTUNA

Zama doinuz arindu

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA ETXARRIKO SARE HERRITARRA

Hirugarren urtez arindu dugu zama. Azken bi edizioetan gertatu bezala, oraingoan ere sarrera guztiak agortuak zeuden igande honetan Etxarri Aranatzeko antolatuta zegoen "Zama doinuz arindu" hirugarren edizioarako. Aurtengo kartelak ere igar

zezakeen halakorik: hurrenez hurren igo ziren Alex Sardui eta Haimar Arejita (Gatibu), Irati Lasa, Petti, Mikel Urdangarin, Ines Osinaga, Ekiza, Kutxi Romero eta Niko Etxart euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkartasunaren oholtzara, haien doinuekin sufrimenduaren motxila arintzera.

Baina aurtengo jaialdiak gehiago ere bazekarren: Porrotzek, Bilboko bezperako manifikat bueltan zetorrela, Etxarri Aranatzeko egin zuen geltokia, erakustera denok elkarrekin joz gero, etsipenaren, nekearen, tristuraren aurrean irribarreak, maitasunak, elkartasunak, ilusioak eta konpromisoak emanen dituztela emaitzak; eta giza eskubideen errespetuan, gatazkaren konponbidean eta benetako bakerako bidean pausoak

emateko guztiok garelako protagonista. Benetan memento hunkigarriak Nagorek eta Haizek edo eta Xochiltek eta Xubanek senide eta motxiladun umeek Porrotxi haien senide presoaren gutuna helarazi ziotenean. Bikaina azken momentuko festa ere, areto guztia puxikak gora eta puxikak behera, eta denak batera euskal presoak etxera oihukatuz. Doinua eta irribarrea jarri genion hainbat urtetako

sufrimenduari. Gustura esanen genuke aurtengo "Zama" izan dela azkena. Baina, azkena izanen ez bada ere, pozgarria da eta eskertzekoa da Etxarri Aranatz bezalako herri txiki batean, zeinetan gaur egun zazpi euskal preso politikoko dauden, honelako elkartasun jaialdi bat antolatzeko "Zama" lan taldeak jarritako ahalegina, dedikazioa eta maitasuna. Eskerrik asko jaialdi hau posible egin duzuen guztioi. Prest gaude!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Leyre Mateos Galarza
Zuzentzailea:
Miren Alonso

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

D eredia, euskarazko hezkuntza aukeratzeko gonbidapena

Heldu den astean aurrematrikulazio epea zabalduko da eta euskarazko irakaskuntza hautatzera animatu dute

SAKANA

Nafarroako hainbat toki erakunde, Sakanako Mankomunitatea barne, eta Euskarabideak euskarazko eskolatzeko sustatzeko kanpaina jarri dute martxan. Izan ere, otsailaren 1etik 7ra aurre matrikulazio garaia baita.

Erakundeetatik azaldu dutenez, "D eredia irakaskuntza-eredu eleaniztuna da, modu integratuan euskara (irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntza nagusia), gaztelania eta atzerriko hizkuntza bat (ingeleza, frantsesa edo alemana) irakasten dituen;

gainera, aukera gisa, familieek atzerriko bigarren hizkuntza bat hauta dezakete. Helburua da eleaniztasun eraginkorra lortzea hizkuntzan murgilduta". Eta gogorarazi dutenez, "adituen arabera, D ereduaren egokitasuna komunitateko hizkuntza berezkoetatik abiatzea da, horrek dakartzen motibazioa eta gizar-tean erabiltzeko aukerak kontuan izanda. Derrigorrezko hezkuntza bukatzean, Nafarroako bi hizkuntzatan komunikatu ahal izatea gizarteratzeko elementu garrantzitsua da".



Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak ateratako kanpaina.

Gehiago

Kanpainak D ereduak "40 urte-tik gorako pilaturiko esperientzia pedagogiko zabala" du. Euskarazko ereduaren esperientziaren arabera, familiak hizkuntza ez jakitea ez da inolako

eragozpena ikaslea eskolan ondo ibiltzeko. Eta laguntzeko www.era.eus web gunea, aisialdiko eta kultura arloko jarduerak antolatzen direla gogorarazi dute. Baita gero eta gazte gehiago direla euskaraz dakitenak.



UTZITAKOIA

Sakanako batua ikastaroa atzeratu egin da

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu du Sakanako batua ikastaroa. Ilbeltzaren 24an zen hastekoa, baina irakaslea, Koldo Zuazo, gaixorik dago, eta horregatik astebete atzeratu da.

Ilbeltzaren 31n eta otsailaren 7an izanen da Sakanako batua ikastaroa, 15:00etatik 16:30era, Mankomunitatearen egoitzan.

Hiri-erabilerako Uraren Zikloa Integrala, parte-hartze plana

Astelehenean bilerak: 16:00etan hautetsiendako, eta 18:30ean, herritarrendako; Mank-en egoitzan

SAKANA

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea 2019-2030 egi-ten ari da. Hura osatzeko tokiko erakundeen ordezkariek eta herritarren partaidetza-prozesua martxan jarri du. Martxoan bitartean instituzio, erakunde pribatu, kolektibo sozial eta herritarrek parte hartzeko aukera izanen dute.

Planak edateko uraren hornidura, saneamendua eta hondakin

uren arazketa hartzen ditu bere baitan. Europako Uraren 2000ko Esparru Zuzentarauaren printzipioak hartzen ditu eta "Nafarroan tresna nagusia izanen da klima-aldaketaren aurkako eta ur-arloko ekonomia zirkularren aldeko borrokarako. Lidergoan eta zerbitzu publikoan oinarrituta, hornidura eta saneamendua benetako hiri-proiektu integral bihurtzea planteatzen du, kontsumo moderatu eta jasangarriak bideratuz eta ingurumenean ahalik eta inpaktu txikiena eraginez".



Urdalurko urteagia azaro erdialdean.

Bileretan galderak eta proposamenak egin eta eztabaidan parte hartzeko aukera izanen da. Bileretan eta Gobernuaren Atari Irekian jasotako ekarpenak hiru astetan aztertuko ditu departamentuak. Jasotakoaren

gaineko hausnarketak bigarren bileran azalduko dute departamentukoek, martxoaren 6an.

Bileraz

Goizuetatik Ziordia bitarteko erakundeetako (16:00etan) eta

herritarrendako (18:30ean) deialdia da astelehenekoa. Hau da hiru eskualdeetako. Bakoitzaren egungo egoera zein den azalduko dute eta etorkizuneko egon litekeen ur eskaera ere aztertuko da.

Sakanaren kasuan, 5. eskualdea planean, aurreratu dute urteko, batz bestea, 4,26 hektometro kubiko ur kontsumitzen direla, haietatik % 39,87 etxeko kontsumoa da, % 20,89 industriakoa eta gainontzeko % 52,15 erregistratzen ez den ura da, hoditeriatik ihes egindako ura. Departamentuaren aurreikuspena hurrengo hamarkadan uraren kontsumoa nabarmen jaitea, bai ur ihesak konpontzen direlako, bai eraginkortasunean hobekuntza praktikoak izanen direlako, baita ohiko kontsumoan aurreztuko delako.

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Etxarri Aranazko sufrimenduaren mapa
- Ikasketa-zerbitzu programa ezagutu dute eskola-ikasleek
- Sakana Trenaren Alde plataforma bere burua aurkeztu du

107.3 FM
www.guaixe.eus-en ON LINE



Arturo Carreñok, Martin Zelaia eta Arantza Iburguren eman zituzten azalpenak.

Tren publiko eta sozialaren alde plataforma sortu dute

Manifestua aurkeztu dute eta AHT egitasmoari alegazioak aurkezteko kanpaina iragarri dute

SAKANA

Uharte Arakilgo tren geltokian 70 bat pertsona elkartu ziren herenegun, Sakana Trenaren Alde (STA) plataformaren aurkezpenean. Udazkenean gorpuzten hasi zen plataforma, baina Abiadura Handiko Trenaren (AHT) ibilbidea ezagutzera emateak aurkezpena "aurreratzera behartu" zituen. Argi utzi zuten sakandarrek osatutako plataforma zela eta ez alderdiz, sindikatuz edo bestelako elkarteak.

Agerraldian argi azaldu zuten euren nahia: egungo trenbidea bikoiztea, beharrezkoa den tokietan ibilbidea egokitzea eta trenbideei nazioarteko zabalera ematea. Gainera, aldiriko eta eskualdeko trenen maiztasuna handitzea eskatu zuten. Horrela, trenak "lurraldea kohesionatuko" luke eta "herritarren zerbitzura" egon litzateke. Gainera, "AHT trazatu berria egitea baino askoz ere merkeagoa eta jasangarriagoa" litzateke eta trenen "abiadurak lehiakorak izaten jarraituko lukete".

Ezaugarriak

Plataformako kideek nahi duten tren publiko eta sozialaren alde egin zuten halako garraio bide bat "pertsona eta toki gehienetara iristen delako, prezio eskuargarriari". Eta tren publiko eta sozialaren ezaugarriak zein izan beharko luketen zerrendatu zituzten. Batetik, "eraginkortasun eta efizientzia handiagoz pertsona eta merkantzien eguneroko trafikoari konponbidea ematen

dio". Bestetik, "herriak, eskualdeak, lurraldeak eta hiriak lotuko" lituzke. "Bera da errepedeko garraioaren alternatiba erreala".

STAk proposatzen duen tren ereduak "iraunkortasuna sustatu eta ingurumena gehien zaindu eta kontuan hartzen duena" dela gaineratu zuten. Aldi berean, halako garraio bide batek "egungo tren sarea eta baliabideak hobekien aprobetxatuko lituzkeela" esan zuten. Plataformako kideendako "trenaren zabaltzeak eta hobetzeak herritarren beharrei erantzun

beharko lieke bakar-bakarrik". Gaineratu zuten, "tren sozialaren kostu ekonomiko, ekologiko eta energetikoa ematen duen zerbitzuaren neurrikoa da, eta beraz, proportzionatua". Azkenik nabarmendu zuten haren kudeaketa publikokoa dela.

Eredu kontrajarriak

Plataformakoen iritziz, AHT "inposatu" nahi digute. Trenbideak Sakanan komunikazio ardatz gisa izan duen garrantzia nabarmendu zuten. "Hala ere,

azkeneko hamarkadetan, gero eta gutxiago erabiltzen da eta martxan dauden geltoki eta gero gutxi horietatik asko arriskuan daude". Batzuk desagerteru edo deskatalogatuta daudela azaldu zuten. "Begi bistan dago galtzear dagoela lurraldea kohesionatzeko gaitasuna duen trena, herriak euren artean eta hiriburuarekin komunikatzen baititu. Hala ere, zerbitzuak gero eta urriagoak direnez, haiek erabiltzeko ohitura galtzen ari gara".

AHT eginen balitz "Sakanan zerbitzu gehiago galduko ditugu, hori gertatu baita ezarri den toki guztietan". Gaztigatu zuten, horien artea leudeke Altsasu Zaragoza edo Bartzelonarekin lotzen duten Alvia trenak. "Araoa konpontzen ez badugu, gure eskualdea korridore huts bihurtuko da". Ibarrean "hesi fisiko asko ditugula azaldu zuten: egungo trena, errepedeak eta autobia, baita tentsio altuko lineak. AHT trazatu berria beste bat litzateke".

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK



Mondragon Unibertsitatea



Egindako lanaren etekina ikusi eta harro sentitzen da bat.

Marta Calvo Fernandez
Gastelz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · URTARRILAK 27
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 3
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · URTARRILAK 27
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 1
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · OTSAILAK 8
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETAK · OTSAILAK 17
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 15
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium



902 110 436
www.mondragon.edu/prest


Dastatu Sakana eta gure xenden mapa Fiturren

Sakanako garapen agentziak turismoari lotutako bi ekimen aurkeztu zituen aurreko ostegunean Fiturren: Sakanako xenden mapa eta Dastatu Sakana marka. Interesa piztu zutelako pozik dago Paki Urbitarte turismo teknikaria

Fitur Madrilgo Nazioarteko Turismo Azoka da. Milaka pertsona pasatzen dira bertatik, eta bertan postua edo standa izateak berebiziko garrantzia du turismo sektorean ibiltzen direnendako. Sakanak turismoari lotutako bi ekimen antolatu zituen ostegunean Nafarroako standean: Sakanako xenden mapa eta Dastatu Sakana marka, gure ekoizleen berri ematen duena. "Ostegunean izan zen, arratsaldeko seietan. Oskia Gorostiaga gure elikadura teknikariak Dastatu Sakana marka aurkeztu zuen, eta nik Sakanako xenden mapa. Bukaeran, Sakanako ekoizleen produktuen dastaketa edo auzatea egin genuen. Jende asko gerturatu zen eta uste dut gure bi ekimenek interesa piztu zutela; gustatu zitzaizkiela, hori zioten bertatik pasa zirenek" aipatu digu Sakanako Garapen Agentziako turismo teknikari Paki Urbitartek.

13 ibilbide, 3 GR eta Donejakue bidea

Sakanako xenden mapak 2016an du jatorria, Sakanako Ibilbideen Planean. Orduan erabaki zen mapa egitea. "Sakanan ditugun 13 xenda edo ibilbide zoragarri zehaztu eta markatu genituen eta baita ere Sakanatik pasatzen



Dastatu Sakana markako produktuak dastatu zituzten Fiturren. UTZITAKOIA

diren 3 GR ibilbide eta Sakanako Donejakue bidea. Azken hau oraindik seinalezatuta gabe dago, baina hala ere Sakanako xenden mapan jaso dugu. Herri Lan Departamentuak 2017an kartografia berri zuenez, azken bertsio hori erabiltzea erabaki genuen, mapa ahalik eta eguneratuena egoteko, eta horregatik atzeratu egin zaigu Sakanako xenden maparen aurkezpena. Fiturrera joan baino lehen jaso genituen mapak eta oso kontentut gaude emaitzarekin" gaineratu du Urbitartek.

Sakanako Donejakue bidez

Donejakueko bide zaharra Sakanatik pasatzen zen. Egiarretako Itxasperi, Uharte Arakilgo Zamartze, Iturmendiko Aritzaga... ibilbide horren lekuko isilak izan dira urteetan. Donejakueko bidea oinezkoendako eta txirindulariendako berreskuratzea, hori izan da Sakanako Garapen Agentziako Turismo Arloko helburuetako bat eta lan horretan murgilduta daude buru-belarri. "2016an Donejakue bideak Sakanan zuen trazatua definitu genuen. Baina ez genuen

nahi soilik Arakilen hasi eta Ziordian depeditzen den bide bat izatea. Horregatik, aurreko urtean Arabako Aldundiarekin eta Lautadako Udalekin jarri ginen harremanetan, gure proiektua aurkeztu eta beraiek Ziorditik aurreragoko bidea zein zen zehazteko, gure trazaketa eta konexio hori egiteko" azaldu digu Paki Urbitartek.

Arabarekin batera

Arabaren begi onez ikusi zuten Donejakue bidea ibilbide turistikoko berreskuratze asmoa. "Urriaren euren proposamena jaso genuen: Ziorditik aurrera, Donejakue bideak Araban egiten zuen trazatua. Espainiako Gobernuak Abeltzaintza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Departamentuak Caminos Naturales delako gida du eta Donejakue bideko gure egitasmoa bertara aurkeztea erabaki genuen" aitortu digu Sakanako Garapen Agentziako turismo teknikariak.

Izan ere, Sakanako eta Arabako Donejakue bidea Caminos Naturales gidan jasoz gero, bidea seinalezatzeko lanak Gobernuak hartuko lituzke bere gain. "Hori aukera aparta litzateke; guk soilik lanen erredakzioa hartuko genuke gure gain, eta ibilbidea markatzeko lan guztiak, berriz, Gobernuak. Memoria baloratua aurkeztea eskatu digute eta memoria hori egiten ari gara Arabako Aldundia eta gu. Badakigu eskari ugari daudela, proiektu asko dituztela itxaron zerrendan eta ez dakigu gurea aintzat hartuko duten, baina gu behintzat saiatzen ari gara" nabarmendu du Urbitartek.

Ezezkoa jasoz gero, beste aukerak aztertuko lituzkete Sakanako Donejakue bidea seinalez-

tatu eta markatzeko. Etapaz-etapa egitea, edo ahal dena.

10.000 mapa

Sakanako xenden 10.000 mapa argitaratu dituzte, 9.000 elebitan eta 1.000 ingelesez eta frantsesez. Sakanako Garapen Agentziako egoitzan, Utzaganen daude, interesatuen eskura. Ale batzuk Nafarroako turismo bulegoetara eramango dituzte eta udan Sakanako turismo bulegoetan banatuko dituzte besteak.

Dastatu Sakana

Sakanako Garapen Agentziak 2017an sortu zuen Dastatu Sakana marka, ibarreko ekoizleen produktuen berri eta ekoizleen datuak jasotzeko. "Iaz Sakanako turismo bulegoetan banatu zen eta harrera oso ona izan zuen. Izan ere, turistek sarritan bertako produktuak zein diren eta non erosi ahal dituzten jakin nahi dute, eta diptiko honekin hori guztiaren berri badute" aipatu digu Paki Urbitartek. Markaren helburua Sakanako bertako produktua indartzea eta balorean jartzea da. "Nabarmendu beharra dago zerrendan dauden ekoizleek euren produktuen ziklo osoa egiten dutenak direla: gazta, karakolak, txistorra, pate, ogia, mermelada... produktu horien ziklo osoa" azpimarratu du.

Ostegunean Fiturren aurkeztutakoa astelehenean Sakanako Mankomunitatean erakutsi zuten Urbitartek eta Gorostiagak.

BERTAKO PRODUKTUA INDARTZEA ETA BALOREAN JARTZEA DA DASTATU SAKANA MARKAREN XEDEA

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

TX
Txartel
Imprenta - Papelería

INPRIMATZE DIGITALA
KOPIA-DENDAKO ZERBITZUA
NEURRI HANDIKO INPRIMATZEAK

www.txartel.net
948 564 002
txartel@txartel.net

Rekalde eta Areta onenak

Larunbatean jokatu zen Lakuntzako Pertza Mus Txapelketako final handia. Jose Manuel Rekalde eta Mikel Areta izan ziren txapeldunak, Jose Julian Garziandiari eta Julian Martiarenari nagusitu eta gero. Hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partidaren Arregik eta Juan Ramon Arregik irabazi zieten Antonio Floresi eta Jose Luis Floresi.





Sakanako biztanleen %40a euskaraz hitz egiteko gai da. ARTXIBOA

Dendariek eta ostalariek euskara sustatzeko materiala, eskura

Merkataritza Euskaraz kanpainari esker euskarazko kartelak, errotuluetarako laguntzak, itzulpenak... dituzte

ALTSASU

Sakanako denda, establezimendu komertzialak eta ostalaritza gizarte bizitzako espazio garrantzitsuak dira. Horren jakitun, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urteak daramatza Sakanako denda, taberna, jatetxe eta establezimenduei euskara sustatzeko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen, Merkataritza Euskaraz kanpainaren bidez. Helburua Sakanako merkatal gune, saltoki eta establezimenduetan euskararen erabilera eta presentzia handitzea da. Izan ere, Sakanako biztanleen %40 euskaraz hitz egiteko gai da, eta zenbait herritan % 60-70etik gora dira euskaldunak. Eta kontuan hartuta, belaunaldi berriak euskaldunak direla, Mank-ek dendariak euskara erabiltzera animatzen ditu, "keinu horrek gertutasuna ematen diolako zerbitzuari".

Kartelak, eranskailuak, inprimakiak, itzulpen-zerbitzua...

Horretan laguntzeko asmoz, Mank-eko Euskara Zerbitzuak zenbait produktu eta zerbitzu eskaintzen dizkie, dohainik, Sakanako merkatariei eta ostalariei. Berriki, zerbitzu eta produktuen gida eguneratu da eta 500 ale banatu dira Sakanako establezimenduetan. Gidan, merkatariek Mank-eko Euskara Zerbitzutik eskura dituzten baliabideen berri ematen da: hizkuntza paisaiako produktuak, kartelak eta eranskailuak (ire-

kita, itxita, ez erre, irteera, erreklamazio orriak, ostalaritzako legeak, merkealdia, eguberrikako loteria...), inprimakiak (fakturak, entrega eta ordain agiriak, ostalaritzako eskaera orriak...) harategia eta arrandegia kartelak, hiztegi-orriak eta itzulpen eta hizkuntza-aholkularitza zerbitzua. Zerbitzu hauek guztiak dohainik jasoko dituzte merkatariek Mank-en eskatuz gero. Errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa euskaraz jartzeko diru-laguntza eskaintzen du Mank-ek eta euskara ikasleendako diru-laguntza.

Errotuluendako diru-laguntza

Errotuluak euskaraz jartzen dituzten lokal komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarteei zuzendutako deialdia azaroaren 30era arte dago zabalik. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari gastuaren % 50 ordainduko zaio. Gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dagoen errotulua jartzen duenari % 25 ordainduko zaio. Gehienez ere 250 euro. Informazio gehiagorako: 948 464 840 edo euskara1@sakana-mank.eus.

35 kontratazio eginak enplegua sustatzeko laguntzekin

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza deialdia baliatuta udalek 35 pertsona kontratatu zituzten 2017an

SAKANA

Ibarreko 15 udaletatik 10ek baliatu zuten Nafarroako Enplegu Zerbitzuak-Nafar Lansarek emandako enplegua sustatzeko diru-laguntzak. Horrela, 35 pertsona kontratatu zituzten, 21 gizoneko (% 60) eta 14 emakumezko (% 40). Haietatik soilik lau ziren bermatutako errenta jasotzen zuten pertsonak (% 11,42). Guztiak ere, udalendako hiru eta zortzi hilabete artean aritu ziren lanean, kontratu luzera normalena urte erdikoa izan bazen ere.



Udalek kontratatuta, lanean. ARTXIBOA

Gizarte Eskubideetako lehen-dakariorde Migel Laparrak joan den urteko deialdiaren balorazio "positiboa" egin zuen. Izan ere, Nafarroako Gobernuak deialdia moldatu egin zuen, enplegua lortzeko zailtasun handienak zituzten kolektiboetako pertsonen zuzentzeko. Hau da, Bermatutako Errenta jasotzen dutenak, langabezian luze daudenak, 45 urtetik gorako langabeak, ezgaitasunak dutenak eta genero desberdintasuna zuzentzeko. Horrela lortu da Bermatutako Errentako jasotzaileak kontratatuetako pertsonetatik lautik bat izatea eta emakume gehiagok lan egiteko aukera izatea. Nafarroan kontratatutako 894 pertsonetatik % 3,91 Sakanako udalek egin zuten, ibarra herrialdearen populazioaren % 3,13 da.

Nafar Lansareren diru-laguntzarekin udalek egindako kontratazioak

Udala	Kopurua	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Bermatutako Errenta jasotzailea		Hilabeteak
				Bai	Ez	
Altsasu	8	6	2	3	5	6
Arakil	4	2	2	0	4	6
Arbizu	2	1	1	0	2	6
Etzarri A.	3	2	1	1	2	6
Irurtzun	4	4	0	0	4	6
Lakuntza	7	3	4	0	7	5ek 3, 1ek 8, 1ek 6
Olazti	2	1	1	0	2	1ek 6, 1ek 3
Uharte A.	2	0	2	0	2	5
Urdiain	1	1	0	0	1	6
Ziordia	2	1	1	0	2	3
Guztira	35	21	14	4	31	

kaxeta

liburudenda / paperdenda



Testu liburuak
Eskolarako
materiale
948 460 477

Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILA



Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Toponimia ibilbideko une bat. ARTXIBOA

Txartela duten autoak ibiliko dira soilik Etxarriko pistetan

Otsailean jarriko da indarrean ordenantza. Udalak bilera informatiboa deitu du asteazkenerako, 18:30ean

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko basoko pistetan -San Adrian, Auntzetxe eta Epeleko bideak- ezin izango dira baimenik gabeko ibilgailuak sartu, otsailetik aurrera. Orduan sartuko baita indarrean basoko pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza.

Etxarriko basoaren antolamendu berria parte hartze prozesuaren ondorioz egin zen, eta bilera horietan adostutakoarekin osatu zen basoko pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza. Esan bezala, otsailetik aurrera sartuko da indarrean, eta, tartean jasotzen da Etxarri Aranazko basoko pistetan kotxez sartzeko txartela beharrezkoa izango dela.

Herritarrek bai

Ondokoek izango dute txartela sartzeko baimena: Etxarriko erregistratutako autoak, Etxarriko

erroldatutako herritarren kotxeak, Etxarriko etxea duten edo alokatuta duten herritarren kotxeak eta bestelako arrazoiengatik basoan sartu beharra justifikatua duten ibilgailuek.

Txartela etxean edo udaletxean

Aipatu txartela udaletxean eskuratu beharko da, basoan autoz sartzeko onuradunek dagoeneko etxean jaso ez badute. Txartelak 2018rako balio du, eta hortik aurrera urtero udal bulegora jo beharko da zigilua berritzera. Txartela ibilgailuan agerian egon beharko da, matrikulazienbakia ongi ikusteko moduan, isunik ez jasotzeko.

Bilera informatiboa

Egon daitezkeen zalantzak argitu eta informazioa emateko, Etxarriko Udalak batzar informatiboa deitu du asteazkenean, hilak 31, 18:30ean, Kultur Etxean.



Inasa industrialdeko lanak. ARTXIBOA

Inasa industrialdea garatzeko 3 fasetako lanen deialdia egina

Behin 2-4 faseak despedituta industrialdeko kale guztiak eginak egonen dira, lanen %90a

IRURTZUN

Inasa zena industrialde bihurtzeko lanak aurrera doaz. Lehen fasean industrialdera beharrezko azpiegitura sare guztiak sartu dira eta sarrera txukundu da. Une honetan pabilioi bat egokitzen ari dira eta lan horiek despeditzean enpresa bat kokatuko da han.

Bitartean, Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoak industrialdeko 2., 3. eta 4. faseak emateko deialdia egin du. Lanek 1.425.531,47 euroko aurrekontua dute (BEZ kanpo) eta haiek egiteko urte erdiko epea izanen da. Enpresa interesatuek otsailaren 9ra arte aurkeztu ditzakete euren proposamenak.

Irurtzunge alkate Aitor Larraza Carrerak esan digunez, lanek udalaren baimena dute eta udalberrian hastea espero du. Azaldu digunez, hiru fase horiek

despedituta industrialdearen % 90 egina legoke, kale guztiak barne. Eginen diren lan guztiak Irurtzunge dermioan izanen dira, baina kale horiek Arakilen dauden partzelei sarbidea emanen diete. Larrazak argitu digunez Inasako aparkaleku itxia zena lanen 5. fasea izanen da eta 6., berriz, bulego eraikina.

Batzarrak

Udala irurtzundarrei zabaltzeko asmoz eta haiek herria hobetzeko zituzten proposamenak azaltzeko bilerak egin ziren pasa den larunbatean. Jende gutxi agertu zen baina euren ekarpenak egin zituzten. Bai horiek bai aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan sortzen diren ideia asko aurrekontuetan txertatzen dituztela azaldu digu alkateak. Eta udalaren aurtengo dirukontuak martxoan onartu nahi dituztela jakinarazi digu.

Enkante bidez hiru baso aprobetxamendu salgai Olatzagutian

Olatzagutiko Udalak eskaintza itxiaren bidezko enkante publiko eginen du hiru baso-aprovetxamendu saltzeko. Baldintzen orria udaletxean eta www.olatzi.eus web orrian daude. Proposamenak otsailaren 9ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke. Aurreneko biak Altzania eta Basabea daude, hirugarrena, berriz, Bargan. Lehen lotea 205 zuhaitzek osatzen dute (33 haritz eta 172 pago, 452,5 m³). Hasierako prezioa 6.758,09 eurokoa da (BEZik gabe). Lesundegi, Muskilina eta Sagarmisaro parajeetan dago.

Bigarren lotea Iruzeta, Polpoliturri, Arizmakur, Zapardegi, Lapurdikozulo eta Auntzetxe parajeetan dauden 224 zuhaitzek osatzen dute (18 haritz eta 206 pago, 504,7 m³). Lizitazioaren hasierako prezioa 9.197,53 eurokoa da (BEZ kanpo). Azken lotea Egiburun eta Erbitarain dermioletan daude, 7.385 pinuk osatzen dute (2.473 m³). Hasierako prezioa 20.896,99 eurokoa da (BEZik gabe).

La Encina elkarteak "hitzordu-txerria" bihar

La Encina Extremadurako kultur elkarteak, urtero bezala, garai bateko txerri-hiltzea biziberrituko dute, bihar. Animalia hilik eramanen dute. Elkarteko kideak 09:00etan bilduko dira. Lehen-lehenik ogi-apurrak gosalduko dituzte, gero lanari ekiteko. Eta despeditu ondoren, extremadurar ohiko bazkaria izanen da. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

PORTUKO
OKINDEGIA

ogia
artisaia

Altsasu
948 563 822
Lantegia
948 467 153
Etxarri Aranatz
948 460 988

BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE
ERAIKUNTZAK
S.L.

Zubetia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionalazate.com

Txalaparta

Ondo Pasa San Juanetan
Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Altsasukoa salatzenko manifestazioa Iruñean

Altsasuko Gurasoak eta Altsasukoak Aske herri plataformak apirilaren 14rako, 17:30ean, manifestazioa deitu dute Iruñean. "Zentzugabekeria salatu eta askatasunaren, justiziaren, giza eskubideen aldeko konpromisoa adierazteko" deia da

ALTSASU

Golem zinemak eta Gaztelu plaza arteko ibilbidea eginen da apirilaren 14an. Atzo aurkezpenean esan zutenenez, "Iruñeko kaleak elkartzunez eta babesaz betetzeko ordua dela uste dugu. Horregatik, giza eskubideen aldeko eta askatasunaren aldeko eta berme demokratikoen aldeko manifestazio plural eta jendetsuenetarikoa bat osatzera deitzen zaituztegu". Azaldu zutenenez, Iruñekoa "pairatzen ari garen zentzugabekeria salatzenko eta askatasunaren, justiziaren, giza eskubideen eta Zuzenbide Estatuaren printzipioen aldeko konpromisoa adierazteko" da.



Gurasoen eta herri-asanbladako ordezkariak aurkezpenean. UTZITAKOIA

Manifestaziorako aukeratutako data epaiketa aurreko larunbata da. Espainiako Auzitegi Nazionalean zortzi gazte altsasuarra apirilaren 16tik 27ra epaituko baitituzte. 375 urteko kartzela zigorrari aurre egin beharko diete. Epaiketa iristen denerako hiru gaztek Madrilen 17 hilabeteko espetxealdia bete izanen dute. Gaur 438 egun egin dituzte preso. Aldi berean, bostak epaitegira 15ean behin joan eta mugimenduak mugatuak dituzte.

Babestuta

Atzo azaldu zutenenez, "egoera larri honen aurrean, Altsasu konpromisoa eta mobilizazioz beteriko herria da gaur egun". Gurasoen eta herri-asanbladaren ordezkariak esan zutenenez, "ez gaude bakarrik. Sozio-kulturalki jaso dugun babesa erraldoia izan da".

Babes horren adierazletzat jo zuten proportzionaltasuna, justizia eta ekitatea eskatzen dituen manifestuak jasotako 80.000 sinaduratik gora, zeinetan gizarte eta kulturako hainbat pertsona ezagunenak dauden. Politika

eta justizia arlotik jasotako babes ugariak ere nabarmendu zituzten.

Atzera ere gogorarazi zuten Nafarroako Lurralde Auzitegiak 2017ko martxoaren 23an "terrorismo delitua leporatzeko arrasto arrazionalik ez zegoela" esan zuela. Ziurtatu zutenenez, "prozesu-bermerik gabeko epaiketa baten aurrean gaude. Prozesuan hainbat oinarrizko eskubide urratu dira: errugabetasunaren presuntzioa, epaile natural eta inpartzialaren eskubidea, defentsarako eskubidea..." Nabarmendu zutenenez, "instrukzio epaileak aintzat hartu duen bertsio bakarra akusazioarena izan da. Akusaziozko txostenak Guardia Civilak egin ditu, ez agente neutral batek, Guardia Civila kasuaren parte baita".

Eta gaineratu zutenenez, "ez dago bakarrik gure lagun eta seme-alaben etorkizuna jokoan; gizarite demokratiko baten printzipioak daude jokoan, Zuzenbide Estatu dago jokoan. Gure seme-alabekin batera sen ona eta gizartea babestu beharko lukeen segurtasun juridikoa eseriko dira aulkian".

HEZKUNTZA ERALDATZEN

GIZARTEA ERALDATZEKO

IKASTOLA EREDUA • IKASTOLA EREDUA

ikastoleneikartea

IÑIGO ARITZA IKASTOLA

948 56 29 51
ikastola@inigoarizta.eus
San Pedro, 16
Altsasu

ANDRA MARI IKASTOLA

948 46 02 86
etxarri@ikastola.eus
Utzubarbiki, 3
Etxarri Aranatz

TXIOKA HAUR IKASTOLA

948 37 30 23
txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus
Santokristobarren, 2/g
Altsasu

WWW.NAFARROAKOIKASTOLAK.NET/NIEIKASTOLA



Txokolatearen berora elkartuta. REBEKA



Frontoiko auzatea. REBEKA

Txokolate beroa eguraldi txarrari aurre egiteko

Rebeka Mendoza OLATZAGUTIA

San Sebastianen eguna ospatu zuten olaztiarrek larunbatean. Egurdiko mezaren ondoren auzatea izan zen Portuko kalean dagoen ermitan. Arratsaldean, berriz, arrosarioaren ondoren elkartu ziren haur eta helduendako txokolate beroa zegoen. Eguna amaitzeko, iluntzean, frontoian ardo eta gazta banaketa egon zen, trikiti doinuez alaituta.

Larunbateko otoitzaren ondoren San Sebastian ermitak atek itxi zituen, otsaileko lehen larunbatera arte. Izan ere, ermitak hilero, aurreneko larunbatean, 19:00etan, meza hartzen du. Ermita ongi kontserbatzeko lanak auzoko andreek egiten dituzte. Ermita garbi mantentzeko arduradunak Fermina Vicente eta Valentxu eta Clarita Lopez ahizpak dira. Hauek, nahiz eta adin nagusikoak izan (nagusienak 89 urte ditu), santuari debozio izugarria diote.

San Anton Dorraon

Larunbatean, 09:00etan, sanantondar dorrobarretako batzuk mezan elkartu ziren. Hildako kofradeak gogoan izan ondoren, elkartean gosaltzera elkartu ziren. Bazkari garaia iritsi bitartean kartetan edota pasiatzen ibili ziren. Batzarra eginda eta Itur-aldea elkartean majo bazkalduta despeditu zen San Anton kofradiaren aurtengo ospakizuna.



UTZITAKOA

Bakaikun San Anton

Bakaikun 96 sanantondar dira. Larunbatean hildakoen omenezko meza egin zuten (Patxi Aiestaran eta Tomas Ondarra). Bazkarira 55 kofrade animatu ziren. Karguak berriro zituzten: Javier Negrin, maiordomo izandakoak, Iñaki Saez de Arana 2017an belero izandakoari eman zion lekukoa eta Roberto Ramos izanen da aurtengo beleroa. +www.guaixe.eus



REBEKA MENDOZA

Iturmendin domekan

Mezan erlikia gurtu eta Manuel Orikin hildako kofradea omendu zuten. Ondoren, bilkuran, kofradiak dituen 24 kideen artean aurtengo abanderatua aukeratu zen: Pedro Mari Eskisabel. Diru kontuak eta bestelakoak jaso zituzten. 19 kofrade Aritzaga elkartean bazkaltzera elkartu ziren. Gazteak kofradian izena ematera animatu zituzten. +www.guaixe.eus



REBEKA MENDOZA

Sanantondar urdindarrak

Larunbatean hildako kofradearen (Eduardo Olai) omenezko mezaren ondoren, kofradiak bere kontuak egunean jarri zituen. Kofrade berriaren izena (Josu Lan) jaso zuten. Baita maiordomo berrienak: Josetxo Aldaz eta Txomin Goikoetxea. Karguan Peio Senosiain eta Tomas Etxarri ordezkatu zituzten. Bazkaltzen 33 kide izan ziren. +www.guaixe.eus



REBEKA MENDOZA

Olatzagutia inauterietarako prestatzen hasi da

Ihote ospakizunak sustatzeko, duela sei edo zazpi urte Herri Ihote Batzordeak egindako dokumentala emanen dute bihar, 19:00etan, kultur etxean. Bigarren emanaldia otsailaren 9an izanen da toki eta ordu berean. Mari Arrokokaren inguruan plazan egindako antzezpeneko eta herri ihoteko irudiez osatuta dago. Haien bidez olaztiarrek festa nola ospatzen duten azaltzen da. Ordu bat inguruko lana da eta DVDaren kopiak salduko dira.

Bestalde, herri ihotean zamarandi edo zamartxikiz mozzoratu eta larrurik ez duteneko udaletxean jaso ditzakete. As-teartetik otsailaren 7ra arte, 10:00etatik 14:00etara izanen da horretarako aukera. Lehentasuna izanen dute 13 urtetik gorako pertsonak, gazte eta helduen parte-hartzea bultzatzeko xedearekin. Hartzaileek, hori bai, 20 euroko bermea jarri beharko dute eta ihoteen ondoren larrua bueltan eramane beharko dute.

Giro onean joan dira Sansaastinak

Jokin Alegriari eman zioten danborradako ohorezko txanoa eta Sansastin ermitan erromerian bildu ziren lakuntzarrak

Lakuntzarrendako bereziak dira Sansaastinak, neguko festak, kuttunak. Eta tarteka euria egin arren, primerako giroa izan zen asteburuan Lakuntzan.

Biltoki gazte elkarteek piztu zuten festen hasierako suziria, ostiralean. Ordurako, Sansaastinetarako etxeetan prestatzen diren piperropilak aurkeztuak zituzten piperropil lehiaketan parte hartu zutenek. Jesus Mozok irabazi zuen, Cristina Razkinekin lehia estua izan eta gero. Gauerdian Lakuntzako danborrada hasi zen, Ricardo Aretak gidatutakoa. Lakuntzako abesbatzak, Ozarki txarangak eta Haize Berriak bandako musikariek ere hartu zuten parte. Ekitaldian, Lakuntzako Pertza Elkarteak Jokin Alegria "Kale" margolariari jantzi zion txapela, bere lanaren errekonozimendua eginez. Kalek saria herriko beste artista guztiena ere

bazela aipatu zuen eta euren ametsagatik borrokatzeko deia egin zien belaunaldi gazteei.

Larunbatean Sansaastin ermitan bildu ziren herritarrak, erromerian, eta festak aurrera jarraitu zuen, igande gaueraino.



Jokin Alegria ohorezko txanoarekin.



Danborradaren 28. edizioa izan zen aurtengoa.



Sansaastin ermitan, erromerian bildu ziren lakuntzarrak.

2018-2019 ikasturtea

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA: **otsailaren 1etik 7ra**



**ZELANDI
HERRI-ESKOLA**

Haur Hezkuntza (3-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
Eskolaldi etengabea
A eta D ereduak
Ingelera eta informatika
Haur Hezkuntzatik
Jangela zerbitzua
Eskolaz kanpoko jarduerak
Arratsaldeko tailerrak



948 564 839 · Zelandi, 18 · 31800 ALTSASU
cpalsasu@educacion.navarra.es · zelandieskola.educacion.navarra.es



Sakana Lanbide Heziketa institutuko bisitatik oso pozik atera ziren haurrak.

Haurrak institutuan ikasketa-zerbitzua proiektua ezagutzen

Lanbide Heziketan izan ondoren euren eskoletan dituzten premiak nola egin aztertuko dute elkarrekin

SAKANA

Ikasketa-Zerbitzu programak hirugarren ikasturtea du Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuan. Hango ikasleek ikasketen bidez trebetasun eta eza-gutza teknikoak jasotzen dituzte. Baina praktikak ere egin behar dituzte. Praktika horiek komunitatearendako ona den zerbait egitean datza ikasketa-zerbitzua. Guztia ikasleak lan merkatura behar bezalako gaitasunekin sartzeko. Izan ere, "gaur egun trebetasun eta eza-gutza teknikoek aparte, ekimena izatea, talde lana eta adierazteko gaitasuna kontuan hartzen diren gaitasunak" dira. Hala gaztigatu zigun Berta De Pablo irakasleak aurrekoan.

Sakana LH institutuko proiektuak Ikasketa-Zerbitzuko Espainiako Sarearen saria jaso zuen abenduan. Aurreneko ikasturtean soldadura eta galdaragintza gradu ertaineko ikasleak aritu baziren, gaur egun ikastetxekeo ikasle guztiak dira programa horretan parte hartzen ari direnak: eskaladako eta mendi ertaineko gida gradu ertainekoak, industria-mekatronika goi-gradu eta Oinarrizko LHko merkataritza zerbitzukoak.

Elkarlanean

Sakanako Herri Eskolek programan parte hartzen duten bigarren ikasturtea da. Lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleek ikastetxeetan dituzten gabeziak aztertu, LHko ikasleekin harremanetan jarri eta haien premien

berri ematen diete. Jasotako informazioarekin LHkoek konponbideak proposatzen dituzte eta adostasuna lortutakoan lanean hasten dira.

Joan den urtean proposatutako lan batzuk nola dauden ikusi eta heldu den urterako lanak proposatzera joan ziren asteartean Irurtzungo, Uharteko Arakilgo eta Altsasuko eskoletako ikasleak institutura. Han ikusi zuten Lakuntzarako prestatzen ari diren bizikletak aparkatzeko pieza, Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxerako diren jolaserako balio duten zaborrontzi bereziak, Altsasuko eskolako zuhaitz itxurako lorategi bertikala, Iñigo Aritzako ikastolako ikasle bat klasean mugitu ahal izateko behar duen gurpildun aulkia edo eskola guztien sarrean jarriko diren plakak. Josefina Arregi klinikari jarri zuten bizikletak aparkatzeko tresnari teiltatua ere jarri nahi diote.

Ikasleak institutuan gora eta behera ibili ziren LHko ikasleak eta irakasleak lagun zituztela. 3 dimentsiotako inprimagailuak, soldagailuak eta beste martxan ikusi zituzten. Haietatik sortuko dira eskoletako premiak beteko dituzten tresnak. Baina mendi ertaineko gida ikasleekin ginkana batean ere parte hartuko dute martxoan.

Hurrengo bisitan Lakuntzako, Etxarri Aranazko, Iturmendiko, Urdiaingo eta Olatzagutiko eskoletako ikasleak joanen dira. Haietako euren ikastetxetara ko ideiak landuko dituzte.

Dagoeneko etxeen % 19 eman du izena 5. edukiontzian

Materia organikoa banatzen duten etxeen kopurua % 24,16ra igotzen da konposta egiten duten etxeekin

ALTSASU

Altsasuarrek 5. edukiontzia erabiltzeko izena ematen segitzen dute. Herria dauden 3.778 etxetatik dagoeneko 718 dira materia organikoa horrela banatuko dutenak. Gainera, 145ek kon-

posta eta 50ek auzo-konposta egiten dute. Hondakinen Zerbitzutik azaldu digutenez, bilketa egitean ohartu dira "oso ongi banatu dela materia organikoa".

Mank-ek eta Altsasuko Udalak hitzartutakoaren arabera, urte

akaberarako gaika % 65 jaso nahi dute eta horretan aparteko garrantzia du materia organikoa bereiztea, etxeetan sortzen diren hondakinen % 40tik gora delako. Helburua betetzeko Altsasuko etxebizitzaren %60 gutxienez bereizi beharko luke, 2.260.

5. edukiontzia erabili nahi dutenek 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete. Bestela, Mank-eko hezitzaileak Baratzeko bide plazako lokomotoran izanen dira ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara.

Gartzia Ximenez goratzea gogoan

1301 urte bete ziren larunbatean Gartzia Ximenez errege aukeratu zutela. Urteurrena gogoratzeko 20 pertsona elkartu ziren Sa Pedro zelaian. Gertaeraren testuingurua azaldu eta jendeak iritziak emateko aukera izan zen. Topa eginez bukatu zuten.

URDIAIN-ALTSASU

"Ez udalak ez gobernuak antolatzen ez dutenez, guk antolatu dugu". Azaldu zuen Marcos Alvarezek (Juanma Galanek ezin izan zuen joan) larunbat arratsaldean San Pedro ermitaren ondoan. Larunbatean Iruñeko Freak Star ekoiztetxekeo kide bat irudiak hartzen egon zen, Altsasuren eta goratzearen inguruan dokumentala egiten interesa duena.

Ekitaldian azaldu zutenaren arabera, VIII. mende hasieran "hemen botere eta politika hutsunea zegoen". 711n arabiarrek penintsulan sartu eta konkistatzen hasi ziren eta horrek errefuxiatuak hona babes bila etortzea ekarri zuen. Giro horretan, 600 pertsona elkartu ziren eta haien artean, berdinen artean, Gartzia Ximenez aukeratu zuten buru Nafarroako Errege. Eta Aita Santuarengana jo zuten, euren erabakiari aitortza ematea eskatu ziezaien. Gregorio II.a Aita Santuak 717ko agorriaren 30ean emandako bulda bidez aitortu zuen autoritatea.

Ameskoako jauna zen Gartzia Ximenez. "Gudari baliotsua zen. Hainbat kroniketan aipatzen dute, baina bere daturik ez dugu. 724an Sobrarben, buru baskoi bat arabiarren kontra aritu zela



Ekimenaren sustatzaileek erregearen goratzearen birsortu egin nahi lukete.

jaso zuten kronikek. Agiriek 757an edo 750an hil zela diote".

Asturias

Bulda ekartzera Epifiano etorri zen. Lehen geldialdia Nafarroan egin zuen. "Erreinuak ez zuen jarraipenik izan. 810ean Iñigo Aritzako agertu arte". Nafarroan beharrezko jakinarazpena egin eta gero Asturiasera joan zen. Pelayo erregearen autoritate berria onartu zuen ere Gregorio II.ak eta 718an izendatu zuten.

"Covadongara joan ginen. Abadeak zituena artxiboak kontras-

tatu genituen eta hango eta hemengo pertsonaiak eta datuek bat egiten dute. Hango erreinuak segida izan zuen". Alvarezek azaldu zuenez, Covadongan "ez zuten Altsasukoaren berri. Izenak bat egiten zutela ikustean, eurek dutena indartzen dutela aitortu zuten. Hor lotura bat dago". Kondaira baino, hasiera dela nabarmendu zuen. Covadongan irailan ospatuko dute Pelaioren koroatzea, Asturiasko Gobernuaren babesarekin. "Abadeak nafarrak joatera gonbidatu gaitu".



Sakanako Pilota Txapelketako finalista guztiak, Joseba Ezkurdiarekin eta Jorge Nagoreekin. UTZITAKOIA

Hemen ditugu Sakanako txapeldunak

PILOTA Lakuntzan eta Arbizon jokatu ziren, larunbatean, XXX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak. Joseba Ezkurdia pilotaria eta Jorge Nagore pilotari ohia izan ziren sari ematean. 112 pilotarik hartu dute parte txapelketan

Irurtzun Hernaniren kontra EHko Kluben Arteko lehen finalerdian

PILOTA Igandean, 17:30ean, Tolosan jokatu da Euskal Herriko IV. Pilota Kluben Arteko lehen finalerdia

Euskal Herriko IV. Pilota Kluben Arteko Torneo Nazionala azken txanpan murgildu da. Igandean lehen finalerdia jokatu dute, Tolosako Beotibarren, Irurtzun eta Hernani klubek. Beste finalerdia otsailaren 4an erabakiko dute, toki berean, Zazpi Iturrik eta Buruzgainek. Eta bi finalerdietako irabazleek final handia otsailaren 18an jokatu du, Beotibarren.

Aipatu txapelketa azaroaren 18an hasi zen eta 17 klubek hartu dute parte. Lau t'erdian Lanasalotek ordezkatu du Irurtzun eta Ojuel izanen du aurrez aurre. Partida gogorra aurreikusten da. Buruz burukoan Alberto Ongay satrustegiarrak (Irurtzun) Lizeaga du aurkari. Aurrelaria atzelariaren kontra: Ongay tantoak aurrean ixten saiatuko da; pilotakada sendoak jotzen eta partida gogortzen, berriz, Lizea-



Alberto Ongay. UTZITAKOIA

ga. Ikusiko dugu nor gailentzen den. Eta, bukatzeko, Olazabalek eta Bergerak (Irurtzun) Arrieta eta Azpitarte dituzte zain Tolosan. Ofizio handiko pilotariak guztiak, hirugarren partidara berdinduta iristen badira, partida ikusgarria espero da.

Binakakoa: gure pilotarien ezinbesteko hitzorduak

PILOTA Ezkurdiak eta Zabaletak 5. puntua nahi dute eta Altuna III.ak eta Martijak lidergoa berreskuratzea

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 10. jardunaldia jokatu da asteburuan. Saikalenari begira, Elezcano eta Rezusta dira liderrak (7 puntu), Altuna III.a-Martijak 6 puntu dituzte, Olaizola II.a-Imazek eta Urrutikoetxea-Galarzak 5 puntu, Irribarria-Merino II.ak eta Ezkurdia-Zabaletak launa puntu, Laso-Albisuk hiru puntu eta Bengoetxea VI.a-Larunbek bi puntu.

Ezkurdia eta Zabaleta aurreko jardunaldian Altuna III.ari eta Martijari 22 eta 16 irabaztetik datoz. Laugarren puntua lortuta, finalerdietara sailkatzeko borrokatik ez dira urrundu. Bihar, larunbatean etxean jokatuko dute, Labriten, Urrutiren eta Untoriaren kontra garaipen garrantzitsua lortzeki datozen Irribarriaren eta Merinoren kontra. Bi bikoek launa puntu



Martijak debut bikaina egin du. UTZITAKOIA

dituzte, eta, hortaz, jokoan dagoena urrezko puntua da. Ikusmina handia da eta Labritek berriro ere final handien itxura hartuko du.

Bestalde, Altuna III.ak eta Martijak gaur, ostiralean joko-

umeak, umeak 1, kimuak 2, kimuak 1, haurrak 2, haurrak 1, kadeteak 2, kadeteak 1, jubenilak eta nagusiak. Giro polita izan zen, eta partida ederrez gozatu zuten pilota zaleek. Nagusien mailan partida lehiatu eta entrenigarria eskaini zuten Nazabalek eta Arbizuk (Irurtzun) eta Goikoetxeak eta Petriatik (Aldabide). Azkenean Nazabal eta Arbizu gailendu ziren.

Sakanako Txapelketako finalak

- Txikiak:** Gurmindo-Sarazibar (Sutegi) 18 / Beloki-Olaetxea (Irur) 3
Umeak 2: Lizarraga-Etxeberria (Irur) 13 / Etxabarri-Razkin (Aldab) 18
Kimuak 2: Etxeberria-laben (Irur) 10 / Okiñena-Amiano (Irur) 18
Kimuak 1: Igoa-Azpeitia (Pilotajauku) 4 / Markina-Martiarena (Irurtzun) 18
Haurrak 2: Arretxe-Razkin (Aldabide) 4 / Ortiz-Ezkurra (Irur) 18
Kadeteak 2: Cidoncha-Agirretxe (Pilotajauku) 12 / Ramiro-Estanga (Aldabide) 18
Umeak 1: Nagore-Eskudero (Irur) 14 / Zubiria-Olarra (Aldab) 18
Haurrak 1: Garmendia-Imaz (Aldabide) 5 / Baztarrika-Lakuntza (Aldabide) 18
Kadeteak 1: Goikoetxea-Gorrotxategi (Aldabide) 17 / Imaz-Lizarraga (Aldabide) 18
Gazteak: Olaetxea-Araña (Aldabide-G. Pilota) 12 / Otxoa-Berastegi (Aldab-G. Pilota) 16
Nagusiak: Nazabal-Arbizu (Irurtzun) 22 / Goikoetxea-Petriati (Aldabide) 16



Emakumezkoen Futbol 8 mailako Altsasu taldea, Ane Cantero entrenatzailearekin. UTZITAKOA

Ilusioak, gogoak eta grinak badute fruitua

FUTBOLA Emakumezkoen Futbol 8 mailako Altsasuk lehen garaipena lortu du, Beti Kozkorri 0 eta 1 irabazita. Helburua gainditu dute, taldea egitea eta golen bat sartzea. Gutxinaka, emakumezkoen futbola errotzen ari da gurean

Emakumezkoen bi futbol talde ditu Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA), erregional mailakoa bata, eta Nafar Kirol Jolasen Emakumezkoen Futbol 8 mailakoa bestea. Mulier futbol taldeko jokalaria den eta egun lesio batez osatzen ari den Ane Canterok gidatzen ditu gazteenak. "Lotailu gurutzatua eta meniskoa osatzeko ebakuntza egin zidaten eta osatu bitartean Altsasuko Futbol 8 mailako neskek entrenatzen nabil, oso gustura" adierazi digu entrenatzaile eta futbol jokalaria altsasuarrak.

Adin ezberdintasuna

Futbol 8 mailan, berez, 15 urterea bitarteko neskek lehiatzen

dira, baina Altsasuko taldean gehienek 8 eta 10 urte bitartean dituzte. "Beste taldetan helduagoak dira, eta hori izugarri nabaritzen da adin hauetan, baina Altsasun adin horretakoak erregional mailako taldean dabilta. Tarteka erregional mailako taldetik hiru futbolari datoz Futbol 8 mailako taldea indartzera, baina 8-10 urtekoak dira taldearen oinarria. Dena den, Futbol 8ko gure neskek ilusio handia dute. Gogoz etortzen dira entrenatzera, asteartetan eta ostegunetan. Orain arte partida ia gehienak galdu egin dituzte, baina berdin zaie. Ilusioa dute, eta hori da garrantzitsuena" aipatu digu Canterok.

Helburua gainditua

Aurtengo helburua taldea egitea zen, 8 eta 10 urte arteko neska hauek futboleant trebatzea, eta akaso golen bat sartzea, baina ligako euren lehen garaipena lortu zuten asteburuan Lekunberrin, Beti Kozkorri 0 eta 1 irabazita, eta gogoz ospatu zuten. "Oso pozik jarri ziren, pentsa!" dio Canterok. "Pixkanaka gauza politak egiten ari dira, ilusioak gauzatzen eta ilusioz beteta dagoen talde honen primerako balorazioa egiten dut" nabarmendu du.

Burlades da Emakumezkoen Futbol 8 mailako liderra. Sailkapenaren behealdean dago Altsasu, baina futboleant aritze-

Emakumezkoen Altsasu Futbol 8 taldea

Emakumezkoen Futbol 8 maila (Nafar Kirol Jolasak)

- **Jokalaria** Ekiñe Aguirre (2007), Nahia Lopez de Goikoetxea (2007), Nahia Morán (2007), Izaro Ramos (2007), Lucia Andueza (2009), Maite Somocurcio (2009), Maren Huegun (2006), Eider Mazkiaran (2009), Ane Vegas (2009), June Lopez (2008), Mireia Andueza (2008) eta Lierni Irisarri Igoa (2008). Maddi Mariñelarena (2004), Naroa Barriola (2003) eta Aintzira Arretxe (2003) dira erregional mailako taldetik Futbol 8 mailakora tarteka jaisten direnak.
- **Entrenatzailea:** Ane Cantero.

ra gogoz doazen neska hauei ez zaie inporta. Izan ere, neska hauen asmoa, guztiaren gainetik, taldean elkartu eta futbolaz gozatzea da.

SDA Altsasuko emakumezkoen futbol taldeak sortu zituenetik, neska gehiago apuntatzen dira futbolera eta badirudi, gutxinaka bada ere, emakumezkoen futbola egonkortzen ari dela gurean. Futboleant aritu nahi duten emakumezkoek ateak zabal-zabalik dituzte SDAn. Dantzalekutik pasatzea, nahikoa.

SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAKINAK

IGANDEAN 5. JARDUNA OLAZTIN

10:00 Aralar Mendi – Altsasu D

10:50 Sutegei – Altsasu D

11:40 Lagun Artea A – Altsasu B

12:30 Lagun Artea B – Altsasu A

13:20 Etxarri A – Etxarri B

Sakanako Futbol Topaketen barruan, igandean, ilbeltzaren 28an, benjaminen mailako 5. jardunaldia jokatu da Olaztin. Kimuen mailakoek atseden jardunaldia izango dute hurrengo asteburura arte.



UTZITAKOA

Tanto batengatik

SASKIBALOIA Larunbatean lidergoa zuten jokoan Liceo Monjardin liderrak eta CBASke, Zelandin. Altsasuko Saskibaloitaldeak primeran jokatu zuen, baina tanto batengatik, 45 eta 46 irabazi zion liderrak. Sailkapenean Liceo Monjardin (21+10) da liderra, CBASK aurretik (19-1). Bihar 3.a den Eguesibar B du arerio CBASke, 2. postua jokoan.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Aibarés – Lagun Artea **1-1**
Mutilbera B – Etxarri Aranatz **2-2**

SAILKAPENA

1. Lagunak **34**
13. Lagun Artea **15**
16. Etxarri Aranatz **9**

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:00 Lagun Artea – Mutilbera *Lakuntzan*

18:30 Etxarri Aranatz – Urrozterra *San Donato zelaian*

Unaik Lagun aurreratu zuen, baina Aibarések hartu zuen agintea eta Laguneko Odonen zorigaitzoko jokaldi batean bana berdintzea lortu zuen. Bestalde, Mutilberak 2 gol sartu zituen, baina Iruñerrikoen bi defentsa akats aprobetxatuta, bina berdindu zuen Etxarrik. Garaipena lortzeaz izan zen.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aurrera – Altsasu **4-1**

SAILKAPENA

1. Berriozar **30**
6. Altsasu **20**

PARTIDUAK

IGANDEAN

16:00 Altsasu – Salesianos *Dantzalekun*

Mazkiaranek Altsasu aurreratu zuen, baina leitzarrek partidari buelta eman zioten. Altsasu 10 jokalarirekin geratu zuen.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK

Izarra – Altsasu **7-0**

SAILKAPENA

1. Berriozar **43**
14. Altsasu **11**

PARTIDUAK

IGANDEAN

12:30 Altsasu – Mulier *Dantzalekun*

Emakumeen Erregional mailakoek asteburuan ez zuten jardunaldirik izan. Bueltan, igandean Mulier talde ezaguna hartuko du Altsasuk.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK

Zaldua – Apolo **3-2**

SAILKAPENA

1. Unziti **34**
4. Zaldua **20**

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Zaldua – Eneriz *Lekunberrin*

Arakilgo taldeak laugarren jarraitzen du.

Irristaketa: gureak, puntan

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako lehen proba jokatu zen Olaztin eta sakandarrak aurreko postuetan izan ziren

Larunbatean Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako lehen jardunaldia hartu zuen Olaztik. Erburua irristalariz eta ikuslez bete zen, eta puntako irristaketaz gozatzeko aukera izan zuten zaleek. Lasterketa azkarrak eta emozio handikoak izan ziren, eta Patin Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak puntan egon ziren, lehendabiziko postuen borrokan guztiz murgilduta.

Erburua kiroldegian goizeko 10:00etan hasi ziren irristalariak lanean. Kategoria txikienetatik hasita senior mailara arte, linea lasterketak eta taldekako erreleboak izan zituzten jokoan. Hasieran serieak jokatu ziren eta, ondoren, finalak.

Gure irristalariak

Aurrebenjaminen emakumezkoetan Enara Perez Barrenetxea olaztiarra bigarrena sailkatu zen, aurrebenjaminen gizonzkoetan, berriz, Asier Galarza Zubiria urdiaindarra eta Gaizka Flores Marin olaztiarra bigarrena izan ziren, berdinduta, bakoitza 10 punturekin. Bestalde, gizonzkoen benjaminetan Eneko Pinto Vicente olaztiarrak irabazi zuen eta emakumezkoen kimuen mailan, taldekako erreleboetan Sakana B hirukotea

–Enera Arregi Gomez eta Intza Unamuno Ruiz altsasuarrak eta Iratxe Lapuente Perez ziordiarra– bigarrenak sailkatu ziren, abiadura handiko proba ikusgarrian. Eta aipatzekoa da ere gizonzkoen haurren mailan, Etxarri Aranazko Jon Mintegi Ziordia irristalaria hirugarrena sartu zela.

Kontentu

Patin Sakana Irristaketa Taldeak adierazi digutenez “oso kontentu gaude bai lortutako emaitzengatik, probaren antolaketa-gatik eta bertaratutako ikusle guztiengatik. Abiadura irristaketak biltzen ditu ikusle gehien Erburua kiroldegian. Faltan botatzen dugu jubenil, junior eta senior mailan ordezkariak ez izatea, maila horietan irristatzen den maila ikusgarria delako, baina kategoria txikietan gure irristalariak egindako lanarekin pozik gaude”.

Datorrena

Igandean Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako bigarren lasterketa jokatu da Iruñean, San Juan klubeko instalazioetan. Goizeko 9:30ean hasiko dira kategoria ezberdinetako probak. Ea irristalari sakandarrak nola dabilzan.



Etxean jokatzen zuten Sakana Patin taldeko irristalariak, eta talde argazkia atera zuten. SAKANA PATIN IRRISTAKETA TALDEA

SAN DONATO
HERRI ESKOLA



AURREMATRIKULA EPEA

Otsailaren 1tik 7ra



www.etxarrikoeskola.com | cpetxarr@educacion.navarra.es | Tel. 948567003

Fernandez omendua

IRRISTAKETA Espainiako Irristaketa Federazioko Gala ospatu zen Bartzelonako Museu Olímpic i de l'Esporten aurreko ostiralean. Tartean, Ioseba Fernandez Fernandez irristalari iturmendiarrak urrezko domina jaso zuen. Merezitako errekonozimendua, Ioseba hiru aldiz izan baita munduko txapeladuna eta 9 aldiz Europako txapeladuna.



ESPAINIAKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA



Beñat Katarain. SASOIANKAZ.COM

MENDI LASTERKETAK**Beñat Katarain
Garinen txapeldun**

Igandean VI. Garingo Mendi Lasterketa herrikoia jokatu zen Beasainen. 224 korrikalarik lortu zuten 11 km-ko lasterketa osatzea. Guztiz lokaztutako proban Beñat Katarain izan zen nagusi. Zegaman bizi den lakuntzarrak hasieratik aurrera hartu zuen (53:43). Bi minutu atera zizkion Martin Diez segurarrari (55:43).

Sakandarrak Araitz Betelun

Ilbeltzaren 14an XIII. Araitz-Beteluko Krossa jokatu zen, 7,7 km-ko proba. 164 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea, Javier Nagore zizurtarra (24:54) eta Marta Muñoz zizurtarra (31:10) buru zirela. Sakandarren artean Raul Audikana izan zen azkarrena, helmugara 24. postuan sartu eta gero (28:12). Juan Carlos Gomez altsasuarra 25.a sailkatu zen (28:27), Joxeja Maiza 34.a (29:05), Asier Estarriaga etxarriarra 62.a (31:26) eta Carlos Mañeru 90.a (33:16).

**Sakandarrak
Garinen****VI. Garingo lasterketa**

1. Beñat Katarain (Lak):	53:43
17. Juan Larrea (Alts):	1:02:10
18. Jabi Gasanz (Alts):	1:02:36
42.F. Azkargorta (Iturm):	1:06:57
55. Jokin Bereziartu (Alts):	1:08:31
144. Aritz Munarriz (Etx):	1:20:22
145. Arkaitz Munarriz (Etx):	1:20:22
147. Ibon Ubeda (Etx):	1:20:36



Aurreko asteburuko Baionako topaketan parte hartu zuten kirolari sakandarrak. SAKANAKO TXUIXOO YOSEIKAN BUDO TALDEA

Sakandarrak Emono Dan Tai Sen topaketan

YOSEIKAN BUDO / EMONO DAN TAI SEN Igandean Euskal Herri osoko Emono Dan Tai Sen Yoseikan Budo ikasleen topaketetan parte hartu dute borrokalari sakandarrek. Egun 160 sakandar trebatzen ari dira yoseikan budoan

Pasa den igandean Euskal Herri osoko Yoseikan Budo ikasleen topaketa antolatu zen Baionan, Emono Dan Tai Sen Topaketa hain zuzen ere. Iparralde zein hegoaldeko jendea bildu zen bertan, kirolaren inguruan elkar ezagutu eta harremanak sendotzeko asmoz.

Aipatu topaketa lehen aldiz antolatu zen, eta bertan Lapurdiko Baiona, Urruña zein Kanboko elkarteetatik etorritako ikasleak, Behe Nafarroan Bida-xune, Izturitze eta Pagolako ikasleak, Zuberoan Atharatzte eta Mauleko klubak eta Hegoal-detik, berriz, Bizkaitik Erandio-ko ikasleak batu ziren eta Nafarroatik Atarrabia eta Berriozarko elkarteak eta Sakanatik Etxarri zein Altsasutik abiatu-tako 35 bat lagun.

Emono Dan Tai Sen

Tamaina ezberdineko makiltxo bigunekin eginiko distantzia-jolasa da Emono Dan Tai Sen. Partaideek taldeak osatzen di-

tuzte, neska zein mutilez osaturiko talde mistoak. Helburua beste taldeko laguna lehenbiziko ukitzea da, kasko zein esku-larruekin babesturik.

Batez ere gazteenei zuzendutako ekitaldia izan zen Baionakoa. “Kimonoa jantzi eta eta beste behin jolasari ekiteko aitzakiarik ez zaigu falta, are gehiago gazttxoen grina eta ilusioa ikusita. Eguna arrakastatsua izan zen guztiz, 150 bat umek hartu zuten parte kategoria ezberdinetan, eta helduei dagokienez beste 40 lagun aritu ziren. Horrez gain, Pagolako elkarteak ikasle elbarridunen bi talde aurkeztu zituen. Sekulako ikuskizuna eskaini zuten, eta txalo zaparrada aparta” adierazi digu Altsasuko yoseikan budoko irakasle Aritz Agirrebengoak. Euskal Herri osotik etorritako epaile ofizialak, koordinatzaileak eta entrenatzaileak izan ziren Baionan, baita txapelketa girotzeko “publiko partaidea”.

Euskarak eta yoseikan budoak batuak

Batasun ekitaldi bat izan zela nabarmendu du Agirrebengoak. “Banatzen gaituzten mugak gaindituz eta gure errealitateak batera uztartzen, euskara eta kirolaren inguruan bildu gara beste behin, ume zein helduak, neska zein mutikoak, gaitasun ezberdineko lagunak, denak Yoseikan Budoaren baitan gozatu eta esperientziak konpartitzeko” aipatu digu irakasleak.

Yoseikan budoaz

Yoseikan budoa Japoniatik datorren arte martziala da, ikuspegi zabal batetik landua. Wikipedian jasotzen denez, 1960ko hamarkadaren bukaera-aldean

**YOSEIKAN BUDO ARTE
MARTZIALEAN 160
SAKANDAR ARI DIRA
TREBATZEN 17/18
IKASTURTEAN**

garatutako borroka-arte da, 1975ean Hiroo Mochizuki japoniarrek ofizialki fundatua. Samurayen tradizioan txertatzen da Mochizukiren lana, haien ondorengo zuzena baita. Txuixoo elkarteak yoseikan budoaren onurak asko direla dio. Besteak beste, gorputz mugimenduaren kontrola, nortasun pertsonalaren garatzea eta, garrantzitsuena, alaitasuna. Bestalde, yoseikan budoaren zeharkakotasunak bere borrokalarietako beste hainbat modalitateetan aritzeko trebetasuna ematen die, kick boxingean, Combat Jujitsuan eta beste hainbatetan.

“Nahi diozun aplikapena emateko askatasuna ematen dizu. Parte asko ditu. Haurrekin gehiago lantzen dugu umeek pertzepzioa, kontziente izan daitezela euren gorputzaz, nola mugitu, oreka, lateralitatea... Gero yoseikan budoaren beste beste parte bat da martziala dena. Esperimentatzea gorputza nola erabili, zeintzuk diren gorputzaren tentsio guneak, nola mugitzen den, borroka praktikoa... Bestalde, txapelketetarako pixkat gehiago lantzen dugu lurreko parte, ukabila eta hankak... oso konpletoa da. Makilak hartzen ditugu, lantzen ditugu distantzia ezberdinetan eta orokorrean lantzen dugu borroka puroa, edozein delarik, erabili dezakezula” adierazi digu Agirrebengoak.

160 ikasle trebatzen ari dira Sakanan

2017-2018 ikasturtean gogoz dabilta Sakanako Txuixoo Yoseikan Budo taldean. Aritz Agirrebengo San Roman irakasle altsasuarrak azaldu digunez, Etxarri Aranatz 60 ikasle inguru dituzte eta Altsasun 100 inguru. Etxarri Aranatz haur eta gaztetxoak dira gehienak, helduen 10 kide inguruko taldeaz gain. Eta Altsasun, 80 haur eta gaztetxo daude eta 20 helduez osatutako taldea. Aritz Agirrebengo da guztien irakaslea, Altsasuko helduen klasean izan ezik; Raul Barrenaren laguntza du Agirrebengoak klase horretarako.

Sakanako Txuixoo Yoseikan Budoko borrokalariak kanpoko ekitaldi eta probetan lehiatzen direnean Amets Yoseikan Budo taldea ordezkatzen dute, Euskal Herri mailako yoseikan budo taldea.

OTSAILAREN 1etik 7ra AURREMATRIKULAZIO KANPAINA

Ongi etan!

Sakanako
HERRI
ESKOLETARA



KALITATEA

Ikasleriaren garapen integrala helburu izanik etenik gabeko hobekuntzan oinarritzen den kalitatezko hezkuntza eskaintzen dugu

ELKARBIZITZA

Gure eskoletako aniztasma eta aberastasunetik abiatuz, elkarbizitza oinarritzko balore bezala lantzen dugu

EUSKARA

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko lehenetsua dugu

PEDAGOGIA BERRITZAILEAK

Pedagogia berritzaileak erabiltzen ditugu ikasleria guziaren beharrei erantzuteko

BERDINTASUNA

Eskubide eta aukera berdinasuna sustatzen dituen eskola gara

INKLUSIOA

Aniztasunari erantzunez, ikasle orok dituen behar desberdinetatik abiatuta, denontzako aukerak sortzen dituu

PUBLIKOA

Herriko eskola, denon eskola gara



IRURTZUNGO HERRI ESKOLA
<http://otakondoa.educacion.navarra.es>
<http://laktuntzako.eskola.educacion.navarra.es> | 948500228
GE: atakondoaapyma@gmail.com



URDIAINGO HERRI ESKOLA
cpurdia@educacion.navarra.es
948468345
GE: geurdia@gmail.com



ALTSASUKO HERRI ESKOLA
<http://zelandieskola.educacion.navarra.es>
cpalsasu@educacion.navarra.es | 948564839
GE: zelandi.apyma@gmail.com

SAN DONATO
HERRI ESKOLA

ETXARRIKO HERRI ESKOLA
www.etxamiko.eskola.com
cpetxarri@educacion.navarra.es | 948567003
GE: apymasandonato@gmail.com



LAKUNTZAKO HERRI ESKOLA
<http://laktuntzako.eskola.educacion.navarra.es/web1>
cpilakunt@educacion.navarra.es | 948576020
GE: apyma@hotmail.com



ITURMENDIKO HERRI ESKOLA
cpitume@educacion.navarra.es
948563414
GE: iturmendikogurasoak@gmail.com



UHARTEKO HERRI ESKOLA
<http://uharteoralki.eskola.educacion.navarra.es>
cpuuharte@educacion.navarra.es | 948567100
GE: sanmiguelapyma@gmail.com



OLAZTIKO HERRI ESKOLA
<http://sites.google.com/na/educacion/navarra/es/olaztiako-eskola>
cpolazeg@educacion.navarra.es | 948563307
GE: apymabados@yahoo.es



ARBIZUKO HERRI ESKOLA
arbizukoherrieskola.blogspot.com
coerbizu@educacion.navarra.es | 948460763
GE: arbizueskolakofamiliak@gmail.com

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 26

ALTSASU Sex-gune, informazio gunea.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Flobin istorio eta ipuin kontakizuna eginen du Xabi Flamariquek.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ZIORDIA Ni neu galtzeta album ilustratua aurkeztuko dute Iker Uribe eta Joana Zigandak.
19:00etan, liburutegian.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ZIORDIA Zubi Ondo kantuz eta pintxo potea.
20:00etan, tabernetan.

ALTSASU Altsasukoak Aske literatur-lehiaketako sari banaketa.
20:30etan, Gure Etxea erainikean.

ALTSASU Una bolsa de canicas filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Bardoak bertso ekimenean parte hartzen duten Sakanako bi taldeen

entrenamendu serioa.
22:30ean, Leku Ona tabernan.

OLATZAGUTIA Toka 2 La Polla bertsio bikotearen kontzertua.
23:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 27

ALTSASU Txerri hiltze ospakizuna.
09:00etatik aurrera, La Encina elkartearen.

OLATZAGUTIA Umeei albumak kontatzeko lantegia. Aurretik izena eman: euskara1@sakana-mank.eus.
09:00etan, liburutegian.

ALTSASU Altsasu eta Zia (Latasatik) arteko 91 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek.
9:30ean, San Juan plazatik.

ALTSASU Plurinazionalitatea. Kataluniako egoera politikoa, En Comú-ren ikuspuntua. En Comú Podem-eko diputatu eta Kongresuko mahaiko hirugarren idazkari Marcelo Expositorekin kafe tertulia.
16:30ean, Gure Etxea eraikineko beheko solairuan.

OLATZAGUTIA Herriko inauteriari buruzko dokumentalaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Primitals kontzertua eskainiko du The Primita Brothers taldeak.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 28

IRURTZUN Biana eta Logroño



ALTSASU Momentos izenburua jarri dio Chuma Arginarizek bere pintura erakusketari.
Otsailaren 2ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

arteko ibilaldia antolatuta du Iratxo mendi taldeak.
Goizean, elkartetik.

ALTSASU Estibalziko santutegiaren inguruan 49 km-ko ibilbidea eginen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
07:45ean, klubeko bajetatik.

ALTSASU Coco filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Ilusioaren indarra, Hodei magoaren ikuskizuna.
17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU El amante doble filmaren emanaldia.
17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal peli.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Una bolsa de canicas filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 29

ARBIZU AHTren ibilbidea dela eta epe barruan alegazioak aurkezteko bilera deitu du udalak.
18:00etan, udaletxean.

ALTSASU Udal Musika eta Dantza Eskolako pop-rock eta ganbera musikako konboen

kontzertua.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 30

ETXARRI ARANATZ Etxarriko Sufrimenduaren Mapa aurkeztuko du Iñaki Egañak, Euskal Memoriako kideak.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU La jaula de sal liburua aurkeztuko du Ibon Martin idazleak Arkatz liburu-dendaren eskutik.
19:00etan, Haritza Tabernan.

OSTEGUNA 1

ALTSASU Molly's game filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoa askatu. Amnistia osoa! kontzentrazioa deitu du Sakanako AEMk.
19:30etan, plazan.

ZORION AGURRAK



Amets
Zorionak Amets! Zer gertu dauden hemezortziak e!! Baina oraindik falta zaizu... Bitartean disfrutatu eguna eta ez ahaztu asko maite zaitugula!!!

JAIOTZAK

- **Amaiur Ruiz Beregaña,** abenduaren 14an Uharte Arakilen
- **Nahia Marquez Lopez,** ilbeltzaren 4an Altsasun
- **Eneko Lopez de Sabando Vidal,** ilbeltzaren 6an Altsasun
- **Melani Frande Pinto,** ilbeltzaren 7an Altsasun
- **Ander Lopez de Gereño Migel,** ilbeltzaren 8an Altsasun
- **Adur Santano Malo,** ilbeltzaren 10ean Altsasun
- **Ioritz Ruiz de Alegria Zabala,** ilbeltzaren 12an Altsasun
- **Lur Irigoien Villanueva,** ilbeltzaren 17an Arbizun
- **Ekhi Prieto Mata,** ilbeltzaren 18an Irurtzunen
- **Aitana Matías Juan,** ilbeltzaren 20an Etxarri Aranatzen
- **Aidan Colmenar Salgado,** ilbeltzaren 20an Altsasun
- **Axio Navarro Aranburu,** ilbeltzaren 22an Altsasun

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Etxarriko irakurle taldea. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuarri buruz hizketazera elkartuko da udal liburutegian marxoaren 8an, ostegunetan, 19:00etan. **Etorikizuna dantza eskola.** Aurten 25 urte betezen ditu eta argazkien eta bideoen bilduma egin nahi du. Materiala e-posta honetara bidali daiteke: musikaeskola@altsasu.net. Edo USB memoria batean sartu eta hara eraman daiteke ere. Musika eskolako idazkaritzan paperezko argazkiak ere eskaneatuko dituzte. Hilaren 30era arte jasoko dute materiala. Jasotakoarekin erakusketa jarriko dute otsailaren 22tik marxoaren 12ra.


www.iragarkilaburak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 26




Igandea, 28



Larunbata, 27



Astelehena, 1



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarranavarra.com
www.dekovenavarranavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Franzis

Etterako ordua...
iritsi zaigu laguna
kanta zagon azkena
alaitzeko gure bidea.

Zubi Ondo kantuz

ESKELA



Franzis Arregi Mujika



Zurekin pasa ditugun
une gozo guztiengatik.
Ez adiorik, Franzis.

Etxezurietako kantariak

ESKELA



Francisca Galarza Lopez de Zubiria

Momentu hauetan eman diguzuen
berotasuna eskertu nahi dizuegu, bereziki
Nati Urriza medikuari eta Mila Goñi erizainari
beraiengandik jasotako zainketagatik.

Familia
Bakaiku

ESKELA



Victoria Iriarte Berastegi

Geurea zara zu eta zeureak gara gu:
Jakin behar duzu gatibu zaudela
geure bihotzetan,
giltza galdu da eta hementxe
egongo zara betiko.

Eskerrik asko emandako guztiagatik

Zure familia

OROIGARRIA



Jesus Mari Jaka eta Xabino Garmendia

*Zuek biyok
beti gukin*

Etxarri Aranazko 69ko kintuek

OROIGARRIA

Iñigo Villarroel Karasatorre

Gu goguen

Etxarri Aranatzen, 76ko zu kintuek

I. URTEURRENA



Teresa Larumbe Larumbe

Vicente Urangaren alarguna
Meza, hilaren 28an goizeko 11:00etan,
eginen da Lakuntzako elizan

Ez zaitugu bertan,
baina gure bihotzean zaude.
Beti egonen zarete gurekin.
Maite zaituztegu.

Zure seme-alabak eta bilobak



OROIGARRIA

Jose M^a Martínez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla

Gukin betiko yonko zarie.

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

OROIGARRIA



FRAN RAZKIN MAIZA
OSCAR IRIARTE RAZKIN

Etxarri Aranazko 68ko kintuek

HERIOTZAK

- **Juliana Azpiroz Rekalde**, ilbeltzaren 11n Lakuntzan
- **Esteban Gomez Gomez**, ilbeltzaren 11n Altsasun
- **Leandro Galarza Galarza**, ilbeltzaren 13an Urdiainen
- **Francisca Galarza Lopez de Zubiria**, ilbeltzaren 16an Bakaikun

- **Martina Luis Erdozia**, ilbeltzaren 19an Lizarragan
- **Francisco Javier Arregi Mugika**, ilbeltzaren 20an Altsasun
- **Domingo Palacios Romero**, ilbeltzaren 20an Altsasun

- **Migel Angel Mendoza Gonzalez**, ilbeltzaren 20an Olaztin
- **Milagros Razkin Flores**, ilbeltzaren 20an Arbizun
- **Victoria Iriarte Berastegi**, ilbeltzaren 22an Arbizun

40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Altsasuko auziak eragindako literatur lanak

Gaur, 20:30ean, Gure Etxea eraikinean asanbladak antolatutako literatur lehiaketako sariak banatuko dira

ALTSASU

Altsasukoak Aske herri-asanbladak literatur lehiaketa antolatu zuen, sortzaileei 2016ko ferietatik aurrera bizi izandako guztia adierazteko aukera eman. Jakinarazi dutenez Euskal Herri guztitik iritsitako 53 lan aurkeztu dira lehiaketako hiru sailletako bi adin mailetara (narratio laburra, mikro-ipuina eta poesia), bai euskaraz, bai gaztelaniaz. Epaimahaia Castillo Suarezek, Alberto Barandiaranek, Arantxa Alavak, Elena Artetak eta Izaskun Etxeberriak osatu dute.

Sari banaketa gaur bertan egingen dute, behin ostiralero kontzentrazioa despedituta. Hitzordua 20:30ean jarri dute, Gure Etxea eraikinean. Antolatzaileek aurreratu dutenez, sarituek euren testuak irakurriko dituzte eta Burundar Txistulariek ere



Eguberritan egindako kontzentrazioa.

parte hartuko dute ekitaldian. Antolatzaileek parte-hartzaileei eskerrak eman dizkiete haien testuek "are gehiago aberastu baitute gazte espetxeratuak, auzipetuak, guztien senitartekoak eta herria bera jasotzen ari diren elkartasun-uholdea".

Altsasukoak aske literatur lehiaketako sariak

Saila	Maila	Hizkuntza	Saria	Egilea	Izenburua	Herria
Narratio laburra	Gazteak	Euskara	1.	Hutsik		
	Gazteak	Euskara	2.	Igor Martinez	Ase, baina Aske	Atarrabia
	Helduak	Euskara	1.	Joxe Aldasoro	Ukabila altxatuta	Etxarri A.
	Helduak	Euskara	2.	Oihane Zuberoa Garmendia	Kezkak lili artean	Erronkari
	Helduak	Gaztelania*	1.	Aitor Iragi	El increíble caso de la bronca menguante	Iruñea
Mikro-ipuina	Gazteak	Euskara	1.	Alex Santano Alvaro	Zigorra	Altsasu
	Gazteak	Euskara	2.	Aitor Tena	Egunsentia gertu da	Zumaia
	Helduak	Euskara	1.	Haizea Ramirez de Alda	Leihotik	Altsasu
	Helduak	Euskara	2.	Joxe Aldasoro	Tunelean	Etxarri A.
	Helduak	Gaztelania	1.	Hutsik		
Poesia	Gazteak	Euskara*	1.	Alicia Garcia	La niebla de Sakana	Elgeta
	Helduak	Euskara	1.	Aratz Fernandez	Akordatzen	Gasteiz
	Helduak	Euskara	1.	Ane Marcos	Hutsera	Atarrabia
	Helduak	Euskara	2.	Garbiñe Sagastibeltza	Iluntasunaren argia	Leitza
	Helduak	Gaztelania	1.	Maria Pinto	Testamento	Gasteiz
Helduak	Gaztelania	2.	Ana Larraza	De amor y dolor	Altsasu	

*Lan bakarra aurkeztu da.


Gazteek BookTubeak egiteko hitzordua jarri dute

Martxoaren 2an, 18:00etan, Ziordiko liburutegian izanen da. Izena emateko: ziordialib@cederna.es

SAKANA

Liburua (book ingelesez) eta Youtube Interneteko bideo plataforma(tube) hitzak elkartzetik sortu da booktube: liburu bati buruzko kritika edo iruzkina da, liburu baten irakurketa gomendatzeko norberak bere buruari egindako bideo-grabazioa, Youtuben zintzilikatzen dena. "Euskal booktuber komunitatearen parte izan nahi dutenek, nondik hasi ez badakite, lagunartean egingen diren kedadetan dute gehiago jakiteko aukera".

Halaxe jakinarazi dute Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Ziordiko Liburutegiak, martxoaren biko kedada edo hitzordua antolatu dutenak. Sakanako gaztetxoan Internet bidez irakurtzeko zaletasuna sustatzeko helburua du ekimenak. Horretarako, "munduan barna sekulako arrakasta



Mattin Zeberio booktuberra. UTZITAKOIA

izan duen booktube fenomeno baliatuz". Saioan kamera aurrean nola jardun behar duten ikasiko dute. Azalpen horietaz aparte, aurten estreinakoz booktube saila duen Maria Markotegi sarietarako lanak prestatzeko aukera ere izanen da.



BAZTERRETIK

OLATZ ALDASORO

"Harambee"



Hitz honek denok batera esan nahi du Kenyako kikuyu etniako hizkuntzan. Zenbat gauza lortu daitezkeen denok batera zerbaiten alde batzen garenean. Eta ez da aparteko teknologiarik edo dirutzarik behar iraultza handi bat egiteko, helburu amankomun bat eta horren alde egiteko gogoia besterik ez da behar. "Harambee" lelopean bizi osoan lan egin duen emakumearen bizitza ezagutzeko aukera izango da otsailaren bukaeran Arbizun,

Wangari Maathairen bizitza, alegia.

Wangari Muta Maathai, ingurumenaren aldeko ekintzailea eta politikaria izan zen. Haurtzaro zaila izan arren, ikasteko diru-laguntza bati esker Ameriketako Estatu Batuetara joan zen 20 urterekin, eta Pittsburgheko Unibertsitatean Biologian doktoratu zen.

Kenyara bueltatzean, ingurugiroan zentratzea erabaki zuen eta honekin batera, pobrezia, gosea eta emakumeen egoera aldatzeko lanean. "Afrikara bazoaz, konturatuko zara emakumeak direla lurra lantzen dutenak, ur bila doazenak, haurrak eta adindunak zaintzen dituztenak. Niretzat oso naturala zen beraiekin lan egitea" zioen Wangarik. "Nire hasierako ideia zuhaitzak landatzea zen, emakumeek egurra, janaria eta etxeak egiteko materiala izan zezaten, baina gertatu zena zera

izan zen: ohartu nintzela emakume hauek deskribatutako beharrak, arazo larriagoen sintoma zirela eta problema hauek estuki erlazionaturik zeudela: naturaren suntsipena, desnutrizioa eta gaixotasunak". Horregatik, 1977an, beste emakume askorekin batera Green Belt Movement zuhaitzen aldeko mugimendua sortu zuten, gaur egun Tanzania, Uganda, Malawi, Lesotho, Etiopia eta Zimbabwe estatuetan ere hedatuta dagoena, 47 milioi zuhaitz baino gehiago landatuz. Wangarik, Afrikako garapen sozial, ekonomiko eta kulturalaren alde borrokatu zuen, ekologia oinarri harturik eta horrexegatik, Nobel Saria jaso duen Afrikako lehen emakumea izan zen.

Wangari Maathairen bizitza islatzen dute Aitziber Alonso ilustratzailearen marrazkiek, Uxue Alberdiren hitzek eta Xabi Payaren itzulpenek, horregatik giza eskubideen gaian zein ilustrazioan modu pedagogikoan sakontzea lortu duen erakusketa eder hau ikustera gonbidatzen zaituztet!

Bi bardo talde sakandar bertsoarako prest

Bardoak 2018, Nafarroako taldekako bertso ekimenean bederatziz sakandar ariko dira, bi taldetan banatuta. Momentuz bi saio aurreikusi dira Sakanan: Lakuntzan otsailaren 9an eta Altsasun otsailaren 16an

SAKANA

Bi urtean behingo hitzorduari fidel, bueltan da Bardoak, Nafarroako taldekako bertso egitasmoa. Laugarren edizioak hasierako izpiritu bera du: "auzolan eta talde lanean oinarrituta bertsolariak beste modu batera lantzeko aukera ematea, bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatuz, gune berriak barneratuz eta molde parte harzailleak praktikan jarritz".

Aurten 16 talde eta 113 parte-hartzaile arituko dira. Horieta bertsolariak 73 dira, arituko eta plazan hasi berriak. Gaintzekoak antolatzaileak edo aurkezleak dira.

Bi talde

Ibarreko bi bardo taldea ariko dira: Sakana Zirt eta Sakana Zart. Aurreneko taldea Idoia Granizo Uribarrena, Eneko Lazkoz Martinez eta Unai Artieda Estanga bertsolariak osatzen dute, Jon Arratibel Irurtzun aurkezlearekin batera. D multzoan parte hartzen daude Ibardin: hiru ta lau dira zazpi eta Patioko bandako bardoekin batera ariko dira aurreneko fasean. Otsailaren 2an Beran antolatutako bertso-merenduan hasiko dira bertsoan, parean Ibardin taldekoak dituztela.

Bigarren taldean, berriz, Josema Leitza Razkin, Joseba An-

doni Beltza Bengoetxea, Ekain Alegre Gil eta Saats Karasatorre Martinez bertsolariak daude. Aurkezlea Arratibel bera da eta antolatzailea Beltza. E multzoan Barañetak eta Addams familia taldeekin daude. Azken horien kontra mustuko dira Lakuntzan jokatu den bertso saioan. Zirt eta Zart taldeek gaur entrenamendua dute, 22:30ean, Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan.

Ezaugarriak

Lehen fasea otsailaren 2tik 16ra jokatu da. Multzo bakoitzean hiru talde daude eta talde bakoitza multzoko bi taldeekin ariko dira, "etxean eta kanpoan".



Irurtzongo bertsozaleak aurreneko saioan. ITZIAR MATXAIN

Bertso eskola Irurtzunen

Pikuxar euskal txokoak bertso eskola bati ematen dio aterpe pasaden ostegunaz geroztik. Zazpi bertsozale elkartzen dira hitz errimatuen sekretuak Joana Ziganda Olanorekin ikasteko. Saiok 19:30etik 21:00etara da eta nahi duenak eman dezake izena.

Epaileak beste multzo bateko beste talde bateko bi kide izanen dira eta ariketa bakoitzean zein talde den onena erabakiko dute. Entzuleek ere saioan hobekien aritu den talde baloratzeko aukera izanen du. Bietatik ate-

rako da saioko irabazlea. Bigarren fasea martxoaren 2tik 11ra jokatu da. Lekunberri martxoaren 24an jokatu den finalean hiru ariko dira.



UTZITAKOA

Tribuaren musika-komedia

Lurra planetakoak? Ez dakigu. Baina hango lau aborigen agertuko dira eszenan. Eta haiekin batera espazioan eta denboran egindako bidaietan xurgatu dituzten hamaika generotako musika dakarte, a capela, lau ahotsetara, abestuko dutena. Baina haien artean bada kontu zeblete eta surrealista. Guztia, bihar, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean.

Helena Tabernaren filmografiari erreposoa Iruñerrian

Urtearen lehen erdian Helena Taberna zinema zuzendariak Iruñerriko bost liburutegi bisitatuko ditu eta bakoitzean bere bost filmetako bat emanen dute. Zikloa hilaren 11n abiatu zen Burlatan. Liburutegi hartan *Yoyes* (2000) filma eman eta hartaz azalpenak eman zituen zuzendari altsasuarrak. Hurrengo egunean Iruñeko Arrosadia auzoan *Nagore* (2010) dokumentalaren txanda izan zen.

Zikloak segida izanen du martxoaren 9an. Egun horretan Txantreako liburutegian *Extranjeras* (2003) lana ikusteko aukera izanen da. Martxoaren 13an, berriz, Iruñeko Yamaguchiko liburutegian *La Buena Nueva* (2008) pelikula emanen dute. Barañaingo liburutegian *Busto de poeta*, *Emiliana de Zubeldia* eta *Nerabe* film laburrak emanen dituzte maiatzaren 30ean. Zikloa hurrengo egunean itxiko da Nafarroako Liburutegian *Acantillado* (2016) filmaren proiektioarekin.

Ibon Martin idazlea Altsasun, etxean bezala

Leire Altuna idazlea protagonista duen tetralogia itxi du Ibon Martin Alvarezek *La jaula de sal* liburuarekin (2017, Trabel Bug). Aurretik idazle ikerlaria *El faro del silencio* (2014, Trabel Bug), *La fábrica de las sombras* (2015, Trabel Bug) eta *El último akelarre* (2016, Trabel Bug) lanen ondoren Pasaia hilketa batek kolpatuko du eta Altuna eta Ertzaintza hura ikertuko dute, thriller psikologiko batean.

Martin bera asteartean Altsasun izanen da bere lana aurkezten eta bere ezagunak agurtzen. Izan ere, Arkatz liburu-dendaren bidez aurretik bere liburuak aurkeztu izan baititu Haritza tabernan eta altsasuarrak bere bi eleberriren kokalekura bisitatu gidatuen eraman ditu. Aurkezpena aipatu tabernan 19:00etan izanen da.

Liburua irakurrita joan beharra dago. Gainera, idatzian Sakana eta Interneten saltsera den liburu saltzaile bat ere aipatzen dira.



Hodei magoaren ikuskizun berria ezagutzeko aukera

Hodei magoa Ilusioaren indarra ikuskizunarekin izanen da Irurtzunen igandean, 17:30ean, kultur etxean. Haur eta helduei zuzendutako familia-magia ikuskizuna da. Magoa, Hodei Domingo Mendiluze, "eszenaratze originala eta berritzailea" talaratu du.

Eszenan laguntzaile bat izanen du baina haiena ez da ohiko mago txiste-kontalariaren saioa. Zinema egitura duen ikuskizuna da, egoera komikoak, koreografiak eta publikoarekin hainbat joko sortzen dituena. Musika ezagunaz jantzitako emaldian Hodei magoak sortzen duen magia izanen baita barrea eragiten duena.



Anita Parker taldearen aurkezpen argazkia: Iñaki Bengoa, Olatz Andueza, Ane Martinez eta Jon Zubiaga "Osoron". UTZITAKOIA

Anita Parkerrek bere diskoa atera du

Sei hilabeteko biziarekin sei kantako diskoa atera du Gose taldeko errautsetatik sortu den talde berriak, Anita Parkerrek. Olatz Andueza lakuntzarra eta herri berean bizi den Zubiaga ditugu taldeko sakandarrak

Leyre Mateos Galartza

1 Taldea noiz eta nola sortu zen?

Taldea ezagutzen den bezala, orain dela oso gutxi, 6 hilabete asko jota. Sormen prozesua lehenago hasi zen. Abestiek taldeak baino denbora gehiago daukate. Aldrebes joan gara.

2 Zer musika mota jotzen duzue?

Etiketak jarri behar badira, elektronikoko dantzagarria, baina etiketa jartzea zaila da. Oinarria

elektronikoa da eta hor pixka bat ateratzen ditu estilo batzuk, popa agertzen da. Eta beti dantzagarritasun klabea.

3 Pertsona askok entzuten dute musika estilo hori?

Mundu mailan elektronikoa nahiko hedatuta dago, hemen jendea sortzen zaizkio galderak, zer egiten duzue, eta abar. Egia da Euskal Herrian azkenaldian asko zabaldu dela, geroz eta gehiago. Elektronikoa bere bidea

badabil egiten. Gero eta ohikoa goa da.

4 Nolako esperientzia izan da diskoa grabatzea?

Azkenean, Iñakik Shotek estudioan lan egiten du, berea da eta hor egiten ditugu entseguak, hor egiten ditugu grabazioak eta guztia. Beraz, grabazioari dagokionez, ez garenez talde bat ateratzen garenak, bilatzen duguna estudio bat da, eta abar. Estudioa gure etxea da, gainera,

ez geneukanez intentziorik diskoa ateratzeko prozesu lasaia izan da. Pribilegiatuak gara.

5 Askok kostatu zitzaizuen grabaketa?

Kostatzen da sormen prozesua bezala, baina suerte hori daukagunez, guk daukagula estudioa gure eskura ez dugu eduki presiorik, denboraren presio hori.

6 Emailzarekin pozik gelditu zarete?

Bai, baina beti hurrengo sormen prozesuan pentsatzen. Pozik bai, baina ez guztiz ase.

7 Zergatik 6 kantako diskoa bakarrik?

Zuzenerako sorpresa moduan beste batzuk uztea eta diskoa borobiltzeko 6 kantu horiek, modu inkontziente batean egin genuen. Ez genuen pentsatuta zabalduko zenik. Hobe da dosifikatzea.

8 Zein entzulerengana ailegatu nahi duzue?

Gustuko duen entzulearengana eta dibertitu nahi den entzulearengana, kontzertutara dantza egiteko gogoarekin datorrenarengana. Mundu guztiarengana eta aurreiritziak ere apurtu nahiko genituzke.

9 Zein da taldearen helmuga?

Hasi, hasi da proiektu bat eta non bukatuko den auskalo. Ametsak ametsak dira, baina horrela jarraitzen badugu, abestiak sortzen eta kontzertuetan gure lekua lantzen, nahikoa dugu.

10 Nola konpontzen zarete entseatzeko sakabanatuta bizi bazarete?

Shot-en, Arrasaten elkartzen gara eta gaur egungo teknologiei esker etxean landu eta bidali ditzakegu gauzak.

11 Zein da Anita Parkerrek bizi duen esperientziarik nabarmenena?

Dena izan da nahiko sorpresa; oso azkar joan da dena eta nahikoa berezia izaten ari da. Bilbon presoen aldeko manian jo genuen, eta bertara itzuliko gara, otsailaren 2an Lagartija Nick jaialdian jotzera.

KARTELAK

ESKUORRIAK

EZ KEZKATU,
GUK LAGUNDUKO DIZUGU!



ALDIZKARIAK

gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus